III URTEA - 2 ZENBAKIA 1922 YORAILA-GARAGARILA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK

TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

BILBO'N
Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 18

DONOSTIA'N
San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA
BANCO DE ESPAÑA, 3
BILBAO, 1922

EUSKALTZAINDIA'REN 2.en URTEKO

BATZAR-AGIRIAK

A. Zabala'ren adizpiakera

A. Intza'ren saŕeritzaldia. (Amaya)

EUSKALTZAINDIA'REN

BIGAŔEN URTEKO BATZAŔAK

Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundi-Yauregi'an 1920'ko Uŕiĺa'ren 22'an.

Batzakuntza onetara euskaltzain abek etoŕi dira: Azkue, Kanpion, Urkixo, Eguskitza, Olabide, Lhande, Landeŕetxe, Intzagarai ta Lakonbe (euskaltz, autatua)

Ona emen artutako *erabakiak:*

1. Euskaltzaindiak Españako Bakaldunari igoŕi zion idazkia argitaratu, ta Euskaleŕian zabaldu.

2. Euskeraren batasunaz egin beaŕ dan batzaŕa, gabon ingurutxurako yaŕi.

3. Odon Apraiz yaunari, bi epetan, 4.000 laurleko eman euskal-lanetarako ta Lakonbe yauna Paris'en artezkari izan datzaiola.

4. Lakonbe yauna Urkixo yaunaren lankide aukeratu, Euskaltzaindiak beaŕ dituen gutun-eroskетarako.

5. Telesforo Arantzadi ta Torrecilla yaunen eskutitzak irakuŕi dira.

6. Koruko Andre Mariaren Irakaskintza'ren la-

guntz-eskaria azaldu da, ta Euskaltzaindiak sari-gaietan laguntzea, erabaki du.

7. Azpeitiko Udalburuaren eskaria ontzak aŕtu, ta eŕi ortako beaŕkolai euskal-izenak yaŕtzeko, Euskaltzaindia aŕduratzen da.

8. Manuel Ayestaran yaunak, egindako *Iztegia*' ren txostena irakuŕi da, ta yaun onen oñordekoari galdetu letzaioke, zeŕ nai duen *Iztegi* oŕegatik.

9. Gazteizko Gotzai yaunari, kristau-ikastia argitaratzeko Euskaltzaindiari txosten eske etoŕi dalako, eskeŕak eman; ta ikasti-azaletan oaŕtxo au ipiñi ditekela, erabaki du.—*Euskaltzaindiak kristau-ikasti au gauŕkoz zuzenetsi dau (du).*

10. Euskaltzaindiak argitaratu beaŕ duen *Euskera* daikeyon *Boletiña*'ri zer izenpeko yaŕi beaŕ ote zayon-go autua yo da; ta auxe erabaki da:
Euskaltzaindiaren lan eta ageriak.

11. Urkixo yaunak dasa, berak euskaltzaingoa usten duenerako, beronek duen Onubatzako sailburugoa Lakonbe yaunari eman letzayokela, ta Euskaltzaindiak bayetza dager.

12. Azkue yauna Bartzelonara yoatea ilabete edo birako erabaki da, Euskaltzaindikiko lan batzuek egin ditzan.

13. Datoŕen azaroan Intza euskaltzañaren saŕpidea izango da, batzaŕaldi-ondorean, edota uŕengo egunaz.

14. Euskaltzainburuari ematen zayo ardura Aita

Soloeta B. Aires'ko Euskal-Etxeko irakaslearî Urgazle-izenpena igoŕtzeko.

15. Kanpion yaunak Napaŕuako Aldundiari idatzi dezayoke, Luciano Bonaparteren eskuidazkiaz.

16. Aita Zabalaren ipuñetarako Eguskitza yaunari itzauŕetxo bat egotzi zaio.

17. Kanpion yaunaren aburuz, on litzake berarizko ikastetxeak iratsi dituzten euskaldun batzuei idaztea, eren ikasguetan euskera saŕ ta erabiĺi dezaten: oŕetarako, auŕez zeintzuk diran yakin-da, igoŕi bear zaye Euskaltzaindiyaren artarakiko ardurazopena.

18. Iruñako Gotzai yaunak Azkue yaunak biali ziyon idazkiari ez dio erantzupenik eman: ez baleyoke garaiz emango, Gotzai yauna beronen etxean ikusi dezakete Intza, Urkixo ta Kanpion yaunak.

Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian 1920'ko, Aziĺa'ren 25 eta 26'an.

Euskaltzain oneik batu zirean: Azkue, Urkixo, Kanpion, Olabide, Lande, Intzagarai, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe.

Asieran Zadorlari-ordeko Intzagarai euskaltzain jaunak azken-batzarretako agiria irakurri eban eta ontzat artua izan zan.

Ona emen artu zirean erabagiak:

1. Euskaltzainburuak Bartzelonako *Institut d'Estudis Catalans* deritxon izakeraren barriak emonaz bere lan bat irakurri eban eta abegi onez entzun ondorean eskerak erakustea erabaki zan. Baita Pompeu Fabra eta Puig eta Cadafalch jaunai (lenengoa *Institut*-eko artezkaria da, bigarena Mancomunidad Catalana-ko Buruzagia) Euskaltzainburuari egin eutsen abegi on eta emon eutsen ereztasunen ordez eskerak emotea erabagi zan.

2. Henry Gavel urgazle jaunari egunarte egin dauzan euskal-lan bikainen alderako eta aurerantzerako daukazan asmo ederrak beteteko batez be «Euskal-Izpiakeraz» ta «Euskal-Alkarbideaz», 4.500 franco emotea.

3. Azparneko Ikasguko Artezkariari, ikasgu oretan sortzeko asmoa daukan euskal-irakaste ori zelan izango dan zearotxoago esateko eskatzea.

4. Iruñako Gotzain jaunari ikustaldi bat egiteko, Intza, Kanpion eta Urkixo jaunak izentau ziran. Euskaltzaindiaren izenean eskabide auxe egiñaz: «Uri atako Apaiz - Ikasgu edo Seminarioan euskal - irakastea sartzeko baimena ta Boletin'ean argitaratzen direan irakasteak edo pastoralak euskeraz be agertu daitezala.» Batzorde onek beronek ikusi bei Goñi jauna, ta irakaste orek euskaratzeko arloa eskiñi beyoe.

5. Bizkai-Aldundiak bialduriko itz-mordoxkaz itz egin zan eta oroen eretxiak artu ondorean, urengo batzarretan, obeto ikasi-ta, azken-eretxia emotea erabagi zan.

6. Euskeraren batasunaz izango dan Batzar-Agiria Lotazilaren 26 eta 27-an Bilbon izatea erabagi zan. Batzar oretan, nai euskeraz, nai gazteleraz nai prantzesez irakurri daitekez lanak eta ezta bearrezkoa egileak eurak irakurtea. Egilearen baimenaz edonork irakurri daike.

7. Altube euskaltzain autatuaren sarrera Bilbo'n Lotazilaren 28'an izango da ta sarrera oretan irakuriko dauan lana Euskaltzaindiaren agerkarian eta banaka argitaratuko da.

8. Egunerokoetan euskal-saila beteteko arloa ondo eroateko, Bizkayan Manterola'tar Gabirel urgazle jauna, Euskaltzainburua artezkari dala, izentau zan. Gipuzkoan eta Naparoan arlo goratsu au beteteko ardurea Intzagarai eta Intza jaunak artu beye.

9. Aranburu eta Ariola ekintzariai *placas esmaltadas* deritxon idazkunen domua eskatu.

10. Ezautailuai ure ta eze (verde) margozko lotsaikia imini ta beste ezautailu txiki batzuk, lotsaiki barik, egitea agindu.

11. Izkuntz-Jakintza idaztiak, euskaltzainak lendik ezpadaukez, eta euren domua andia ezpada, binaka erosi.

12. Aldundiai, Euskaltzaindiaren Gutuntegirako, binaka daukezan gutun-elazkinak eskatu.

Bilbo'n, "Escuela de Artes y Oficios" deritxon Ikasguan, 1920'ko Lotazilaren 26'an, goizeko 11'an eta arratsaldeko 7'an.

Euskerearen batasunaz Batzar - agiri - berezia izan zan.

Maipuruan Euskaltzaindiak erabagi ebanez, Azkue, Eleizalde eta Olabide euskaltzain jaunak jesarri zirean.

Asieran Eleizalde jaunak, euskeraz, itzaldi laburtxo baten batzar orren gora andiko gaya azaldu eban eta ondorean txosten edo ikerpen batzuk irakurri zirean. Ona emen egileen izenak:

(Goizean) Larakoetxea eta Agirezabala'tar Sendi Gurenaren Ipolita, K. O. (euskeraz): Gaubeka'tar Bitor, Irarkaria (euskeraz); Nicolas Cortes, Apaiz jauna (erderaz); Urutia'tar Gotzon, M. B. S. Urtzizti - irakaslaria (erderaz).

. (Arratsaldean) Madariaga'tar Angeru. O. Pr. m. (euskeraz). Ganera, Kanpion eta Broussain jaunak Euskaltzaindiari gai orezaz aurkeztu eutsen lana eta Jesus'en Lagundiko A. Ormaetxeak *Revista de Estudios Vascos*-en argitaratu eban lan eder bat bere irakurri zirean.

Azkenez, Manuel Egileor jaunak, arratsaldean bertan, Euskaltzainburuari zuzendu eutsan eskutitz bat irakurri zan. Ezkutitzaz batera amabi bat idazti *Sobre la Unificación del Euzkera* bialdu ebazan esanaz bere eretxia idazti oregaz batean dagoala. Idazti onen laburpenak Azkue jaunak irakurri ebazan eta beste barik batzaldia amaitu zan.

Bilbo'n, "Escuela de Artes y Oficios" deritxon ikasguan, 1920'ko Lotazilla'ren 28'an, gabeko 7'an.

Batzar-agiri-berezia egin zan.

Maipuruan Azkue, Kanpion, Eleizalde, Olabide, Lande, Intzagarai, Landerretxe, Intza, Lakonbe euskaltzainak eta Menendez Pidal, Navarro Tomás, Americo Castro, Apraiz (Angel); entzuleen artean Oleaga, Lekuona, Manterola, Belaustegigoitia eta Apraiz (Odon) urgazleak.

Batzaldi onen gaya, Altube jaunaren euskaltzain-sarera izan zan eta onetako gertaldietan oi danez sar-itzaldia beragandik entzun genduan. Ondorean Euskaltzainburuak bere erantzupen - itzaldia irakurri eban eta lagungaya Euskaltzain autorturik ezautailua ezari ta eskua estutu eutsan.

Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean, 1920'ko Lotazilla'ren 29'an.

Aulkietan, Azkue, Kanpion, Eleizalde, Olabide, Lande, Intzagarai, Landerretxe, Altube, Intza eta Lakonbe euskaltzainak eta Lekuona, Apraiz, Manterola ta Belaustegigoitia urgazleak.

Ona emen artu zirean erabagiak:

1. Azparengo Misionisten buruzagiak euskal-ikastea sortzeko laguntasuna eskatuaz egin eban ezkutitzari garaiz erantzun jakola eta, ikusirik iñolako erantzumenik eztala artu, ille bi baru bertan izango

doguzan batzarretan asmo oŕen baŕiak jakitea erabagi zan.

2. Azken-batzarretan erabagi zanez Kanpion eta Intza jaunak Iruñako Gotzain ospetsuari Euskaltzaindiaren izenean eskabide-idazki bat eskuetan dabela, ikustaldia egin dautse. Abegi onez entzun ondorean eskabide guztiak ontzat artu ebazan eta len-bai-len beteteko asmo benetakoa erakutsi ei-eban. Euskaltzaindiak, baŕi oneik pozaŕen entzunik, Gotzain jaun oni eskeŕak erakutsiaz idazkia zuzentzea erabagi eban.

3. Iruñako Seminarioan soŕtuko dan euskal-irakastea bere gain artuko dauan Irakaslaria euskalari jakintsua izatea beaŕekoa dala ta oŕetarako diru-laguntasunik bear bada 1.500 lauŕleko emotea erabagi zan.

4. Iruñako Gotzain-Agerkarian agertzen direan Kristau-ikasteak euskeratzeko arloa A. Intzak eta Goñi jaunak artu eyela.

5. *Patronato* deritxon ikasguko zeŕenda, A. Intzak, Urabayen jaunagandik lortu eyala.

6. Gazteizko *Heraldo Alavés* deritxon egunerokoak euskal-idazki bat, astero, argitaratuko dauala. Geyagorik, langileak uŕi daukazalako, ezin eskiñi daikeala.

7. Bayonako Gotzain jaunari, beste euskal-Seminarioetan bezela angoan bere euskal-irakastea soŕtzea egoki litzakeala-ta eskabide ori egiñaz idazki bat zuzentzea.

8. Lapurdiko euskalki-ikastaroa, alde aretako irakasleren bat eskuetan izan ezkero, Bilbon emotea ontzat artu zan.

9. Schuchardt euskalari ospetsuari asmotan daukazan euskal-lanak argitaratzeko laguntza eskeiñi. Beroni Euskerearen batasunaz bere eretxia eskatu.

10. Bizkai-Aldundiaren Mozkin-Kutxarako itzak euskeratzeko Azkue, Eleizalde eta Eguskitza izentau zirean.

11. Euskaltzainen ezautailuak zenbatu, gero bakotxari adinka eta Euskaltzaindian sartu zirean kirian emoteko.

12. Victor Collins gutun-saltzaileari eskerak erakutsi Luciano Bonaparte'ren idaztiak Euskaltzaindiari binaka bialdu-aren, bata utsean (uririk) emon dautsalako.

13. Egunerokoetan Euskaltzaindiaren izenean agertzen direan lankideen idazkirik onenak, urte-amayeran batera argitaratu.

14. Euskaltzaindiaren bein-beineko euskalkia (diploma ta agerkaietan) Giputza izatea.

15. Gaubeka'tar Bitor irarlea gogoan izan *Cultura Vasca*-k saritu dauzan idaztiak argitaratzean.

16. *Cultura Vasca*-ri dagokiozan lan guztietan, Euskaltzaindiaren onespenez, lendik oretarako izentauta dagoan Batzordeari eskubide osoa emon.

17. Euskerearen batasunaz aurkeztu zirean lanen laburpenak euskaltzain guztiai bialdu.

18. A. Intzaren euskaltzain - saŕera Elizondon, Urtaŕiĺaren 27-an izan dedila.

19. Iztegia atontzeko izentautako Batzoŕdeak, batzaldurik, auŕerako daukazan asmoak auŕkeztu daizala.

20. Henry Gavel - ek, Toulouseko Goikasguan asiera emongo dautsan ikastarora norbait bialdu al izateko, Eusko - Ikaskuntzaren Batzoŕde-Egintzariari iru ilebeteko bizi-sariak eskatu.

Elizondo'n, Udaletxeko areto nagusian, 1921 ko Ilbeltza'ren 27'an, goizeko 1o'an.

Alde auŕetik iragaŕitako Batzaŕaldia, Intza - taŕ Damaso aita Euskaltzaindian saŕ erasteko, Elizondoko Udaletxean, gauŕ egin da. Asierako otoitz ostean, Euskaltzainburu Azkue yauna maipuru zalarik, bere aldamenaz Elizondo bertako Udalburua, alkitan ixiri ziran Olabide, Landeŕetxe, Eguskitza, Intzagarai, euskaltzañak, Intza ta Lakonbe, aukeratuak, ta Aita Aŕigarai, Aŕburua ta Etxepare uŕgazleak.

Azkue yaunak, gela-nagusian zeuden napaŕtaŕai aguŕ estitsu bat egin ziyen, adieraziyaz gañera, zeŕtarako zan batzaŕaldia, ta ondoren yaiki zan Intza'taŕ Damaso yauna bere saŕerako itzaldia esatera. Gogoz eta aŕduraz entzun zitzayon, edeŕ ta gain-gañeko itzaldia zekaŕen-da, aitatuaz Napaŕoan euskerak darabiltzkien bereizpenak.

Itzaldi onitxe, Aita Olabidek beste batez erantzun

ziyon, zakon da egoki, aita onek dakiyen ta oi duen bezela; ta aurez zeuzkan euskaldunek sutsu itzuli zituan, euskeraganako maitasuna eren biyotzetan ixiotuaz.

Ondoren, Euskaltzainburuak euskaltzain berriyari, ezautalua lepotik ezari ziyon, zorionak ta urte luzaroko biztaldia opaturik, berau gozo laztandu-ta. Beste euskaltzañat ainbet egin ziyoten.

Besterik gabe, oizko otoitzaz, batzaraldia amaitu zan.

Lekarotz'en, Lekaidetxean, 1921'ko Ilbeltza'ren 27'an, arratsaldean.

Agerika gertu zan, bertan salatu zitezen naparrarak euskera batasunatzaz zeukazketen aburu ta iritxiyak.

Azkue yauna maipuru, aldamenaz Aita Eusebio Azpilgoeta Lekaideburua, Olabide, Eguskitza, Landeretxe, Intza, Intzagarai, euskaltzañak, alkitan.

Aita Arigarai ta Arburua urgazleak antxen zeuden.

1. Azkue yaunak euskal - izkizaz erderaz itzegin zuan, *erderaz* noski, beraren iritxiz, orela obego zetorkiyolako, itz bereziz oraindik zurtz dagon lan oretxeri.

2. Donostiko Koruko Andre Mariaren Irakaskintzak Euskaltzaindiyari, idaztiño batez, eskerak dagerzkiyo, bere arazotarako sorozpidea agindu diyolako.

3. «Comisión Provincial de Gipuzkoa» deitzen dan batzaren idazki bat irakuŕi zan.

4. Iruña-ko Gotzain yaunarena, adierazoaz, ezdala aztukoŕ Euskaltzaindiaren bidez agindutako gauzetan.

5. Azkue yaunak Hugo Schuchardt yaunari egin ziyon idazkiya berarek irakuŕi zuan. Idazki ontan esaten zitzayon, Euskaltzaindiyak bere lepotik aŕgitaratu lezazkikela bere lan batzuek, alpidez uŕi bazebiĺen; Schuchardt yaunak ez du ezer erantzun.

6. Azpaŕengo Ikastetxe-Buruzagiak Euskaltzaindiari beste eskutitz bat digoŕkiyo. Onetzaz erabaki da, Euskaltzaindia Azpaŕenera dijoanean, aŕpegiz-aŕpegi egingo dirala gai onen itunbenak.

7. *Toponimia.* — Tokizentzaren lanak Iruñako apaizgai Albistuŕ-taŕ Bitoŕi egoztea erabaki da, Napaŕoako alderdiyan lan oni dagokiyonatzako.

8. Eskeŕak ageŕtu Elizondoko Udalari, ain aŕera ona egin diyolako Euskaltzaindiari Ta

9. Eskeŕ berezi bereziyak Lekarozko Lekaideburu ta Lekaide guziyari eman beaŕ zaizkiye, Euskaltzaindia beren berezko senide ta guraso bezela adeitu dutelako.

Euskera batasunatzazko txosten bidean, txosten bat bakaŕa azaldu zan: auxe Joan Kurutze Goyenetxe Amayur-ko apaizarena.

Berak irakuŕitakoan diyo:

1. On litzakela, euskalki guziyak eren adoretan biziaraztea.

2. Euskeraren batasuna lan zaĺa dala.

3. Batasuna eragiteko, buru gogoŕak gerala euskaldunok.

4. On litzakela, euskalkiak dagozen eran ustea, txoko guzitako esakizun politak baŕeyatu ditezen.

Ondoren, Euskaltzaindiak, oiturazko otoitzez, batzaŕaldia amaitu zuan.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1921 'ko Otsaĭla'ren 24 ta 25'an.

Batzaldu zirean: Azkue, Kanpion, Olabide, Intza, Landeŕetxe, Intzagarai, Eguskitza, Eleizalde ta Altube euskaltzaiñak ta Lakonbe euskaltzain aukeratua; Belaustegigoitia uŕgazlea auŕean zala.

Ona emen artu zirean erabagiak:

1. Durangon, Uztaĭlaren azken-inguruan lru-lau eguneko euskal-jaiak Euskaltzaindiak ospatzea. Jai onek bi urtetik bi urtera, Eusko-Ikaskuntzak ospatzen eztauzan urteetan izango dira. Aurtengoak Bizkaiko uri batean izatea erabagi zan.

2 Bizkai - Aldundiko *Junta de Cultura Vasca*'ren eskabideai erantzuteko ardurea Azkue eta Eleizalde jaunak artu beie.

3 Euskaltzainburuak euskal - izkitaz (afijos) bere geigarri bat irakurri eban eta oroen aburuz eskerak erakutsi lan bikain ori aurera eroan daian.

4 Legazpiko euskal - aditzaz Gerhard Bacherk egiñiko lan polit bat A. Olabidek irakurri eban. Oron aburuz lan ori gure Euskera agerkarian argitaratzea erabagi zan eta jaun argitsu ori euskaltzain-urgazle izentau.

5. Oyeregi' tar Buenaventura Aita Kaputxinoa bere, urgazle izentau.

6. Gipuzkoar batzuk euskera utsezko agerkari bat argitaratzeko asmoa dabela Intzagaray jaunak esan eban. Bari au poz-pozik entzuna izan zan eta laguntasuna emotea erabagi zan.

7. A. Kaputxinoak Ondarabian agertzen daben euskal-agerkariari, A. Intzaren eskabidez, lagundu.

8. Belaustegigoitiaren eskabidez eta oroen baimenaz, urgazleak euskera ikasteko idaztiren bat erosi gura dabenean Euskaltzaindiak erdia ordaindu daiala. Erabagi onen egokitasuna Euskaltzaindiak neurtuko dau.

9 Euskaltzainak batzaretan irakurri dabezan lanak gure agerkarian al-bait ariñen agertzeko A. Lhanderi otoitz egin.

10. Eusko-Ikaskuntzari eskatu, idaztiak irargitzeko daukazan diruak, euskerari dagozkionak Euskaltzaindiari emonaz, banandu daizala. Erabagi au Eleizalde jaunak itzez beteko dau bide batez alkar artuaz Aldundiak emongai daukazan idaztiak banatzeko.

11. Lekararozko Kaputxinoen Ikasguko mutil ezpatadantzariai Euskaltzaindiaren izenean askari on bat emon.

12. *Diccionario de la rima* egiteko arazoa Elgezabal jaunak artu daiala eskatu bekio.

13. Azparengo auzapezari udal-etxea eskatu, datorren ilaren 8-an goizeko bederatzietan zabalik itxi daigula, Lakonbe jaunaren euskaltzain-sareran izango dan batzar-agiria bertan ospatu al izateko.

Azkenez, ezkutitz batzuk irakuri ondorean, eta urengo batzarak Azparen-en Epailaren 7-an eta 8'an izango dirala izentaurik, oi dan otoitzarekin batzaldi onek amaitu zirean.

Azparen'en, Udaletxean, 1921'ko Epaila'ren 7'an.

Batzar agiria izan zan euskeraren batasuna gaya izanik.

Maipuruan, Azkue, Olabide, Landeretxe ta Altube euskaltzainak, Lakonbe euskaltzain autatua, Belaustegigoitia, St. Pierre, Elizalde ta Leon urgazleak, jesari zirean, beredin entzule aurean zireala, beren artean Gerger, Upsala'ko *Privat Docent*-irakasle euskalarigaia.

Batzaldi onetarako bialduriko, Aita Oyeregi, Anabitarte eta Jauregi jaunen txosten edo ikerpenak irakuri ondorean, Jean Saint-Pierre urgazle jaunak bere aburua, Lapurdi'ko euskalkiaren alde, itzez, azaldu eban eta beste barik azken-otoitzarekin, oi danez, batzaldi au amaitu zan.

Azpaŕen'en, Udaletxean, 1921'ko Epaīla'ren 8'an.

Batzaŕ au bere, agiria izan zan.

Maipuruan, Azkue, Olabide, Landeŕetxe, Altube, Lhande euskaltzaiñak, Lakonbe, autatua, Belaustegigoitia, St. Pierre, Elizalde, Leon eta Daranatz uŕgazleak.

Batzaldi onen gaya Lakonbe autatuaren euskaltzain-saŕera izan zan eta onelako gertaldietan oi danez saŕ-itzaldia beragandik entzun genduan. Erantzupen-itzaldia Azkue euskaltzainburuak izan eban eta bere amayeran lagungaya euskaltzain autoŕturik, ezautaīlua esaŕi eta eskua estutu eutsan, anaitasunezko erakuspen au beste euskaltzain lagunak bere agerturik.

Batzaldi onen amayeran euskaltzain eta entzule guztiak īlaŕietara joan zirean Brousain (G. B.) euskaltzain zanaren obian bere arimearen alde otoitz egitera.

Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1921'gko Joŕaila'ren 28'an.

Batzaŕean bildu ziran euskaltzañak abetxek izan ziran: Azkue, Maipuru, Kanpion, Eguskitza, Altube, Olabide, Intza, Landeŕetxe, Lhande, Lakonbe, ta Intzagarai; uŕgazlerik Manterola Gabriel, Eibaŕkoa.

1. Euskaltzainburuak Euskeraren batasunezko txostenak irakuŕi ditu, ta arazo gaŕantzi onen lanai auŕerapena eman zaye.

2. *Euskera*, Euskaltzaindiaren lanen aldizkariak, urengo zenbakian, oraintxu sartu diran euskaltzañen itzaldiak argitaratuko ditu, ta auei egin zaizkiyen beste euskaltzañen erantzupenak. — Urengo zenbakian: Euskeraren batasunezko txostenak, ta urengoakoan beriz, Euskaltzaindiaren oraindañoko erabakiak.

3. Aurten, Euskaltzaindiaren opor ilak, Uzta ta Dagonila izango dira.

4. Durango-ko euskal-egunetzaz asko ta luze itz egin da. Azkue jaunak, zer egin ditekearen txosten egoki bat azaldu du; ta erabaki dana, auxe da: euskal-egun oyen gertule dan batzordeak, Euskaltzaindiari bere asmoak agertu dizazkiyola, zortzi edo amabost egun baru, ta geroko beste zortzi bat egun tarte, euskaltzain bakoitzak batzorde ori bere aburua bidali dezayola.

5. Euskal-idazkerazko txosten sakon ta edera, Maipuruak irakuri du, berak atazaz egiña noski; ta Euskaltzaindiak, erabaki du: Euskaltzain bakotxak txosten ori izan dezala, nai duen abetatik edozeñek, baderitza, bere iritxia erantzi dezayon.

Donostia'n Aldundi - Jauregian; 1921'ko Jorailla'ren 29'an.

Bildu diran euskaltzañak: Azkue maipuru, Kanpion, Eguskitza, Altube, Olabide, Intza, Landeretxe, Lhande, Lakonbe, Intzagarai; urgazlerik Manterola Eibarkoa, ta Belastegigoitia, Durangokoa.

Erabakiak:

1. Eskeŕak eman Bilboko, *Euzkadi*, *Gaceta del Norte*, *Nervión*, *La Tarde*, *El Pueblo Vasco*, *Noticiero*, ta Iruñako *Pensamiento Navarro* deitzen diran egunekoai, euskerazko zeŕenda batzuek, eren oŕialdetan azaltzen dituztelako.

2. Olabide euskaltzañak egin duen *Lorestiaren* batzaldirako deya argitaratu.

3. Azkue jaunak irakuŕi duen *bai* aditz-auŕizki txostena Euskaltzain bakotxari bidali.

4. Victor Colins'en liburuak garesti deritzazkiyo Euskaltzaindiari; ta oyetatik zer erosi ditekeneko aukera zuŕaren baimena Lakonbe euskaltzañari ematen zayo.

Gero-geroko ta beste liburu batzuen autabidea beroni ematen zayo.

Ta besterik ez da, batzaldiai amai eman zitzayon oiturazko otoitzez.

Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1921'ko Oŕiĺa'ren 27'an.

Batzaŕ aldian bildu diran euskaltzañak abetxek dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Urkixo, Lakonbe, Landeŕetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Eleizalde ta Intzagarai: uŕgazlerik batez.

Erabakiak:

1. Emendik aurerontzean, euskaltzañak, batzar nagusia baño ordu-erdi edo ordu-bete lenago, batzar txikitan bilduko dira, bizkaitar, naparrtar, gipuzkoar ta lapurdi-zuberotarez zatituak.

2. Naparruako Aldundiak Euskaltzaindiari agindu-ta daukayon sorozpidea Kanpion ta Intza jaunak jaso bezate, jaun abek deritzazkiten euskera aldezko lanak Naparruan berrtan eragiteko.

3. Euskaltzain bik Lekarozko Ikasguan, berrtako ikasleai 400 *peseta* saritzat emanaz, (Euskaltzaindia an zalarik egindako euskal-jolasketagatik) egin duten ikerraldia, Euskaltzaindiak ontzat eman du.

4. Eguskitza jaunak *bai* aditz-aurizkitzaz txosten eder bat irakurri du.

5. Aita Lezo'ri argitaratu nai dituan igandetako itzaldientzat Euskaltzaindiak *mila peseta* aureratzen dizkiyo, gero Euskaltzaindi berari biurtzekotan ordea. Itzaldi ayek azterrtzeko ardura Eguskitza ta Intzagarai euskaltzañai egotzi zaye.

Ta besterik gabe gaurko beintzat, egun ontako batzarraldiari, oizko otoitzaz, amaitz eman zitzayon.

Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1921'ko Oŕila'ren 28'an.

Auŕeko agirian aipatu diran euskaltzain berok bildu ziran: uŕgazlerik batez.

Erabakiak:

1. Azkue jaunari Eŕonkarira joateko eskubide ematen zayo, euskerazko lanetan diardun. Beste lagun bat eraman dezake.

Lan berdiñetako Intza jaunari eskubide ematen zayo, Eŕonkari beŕtan euskal-aditzaren lanak egin ditzan. Euskaltzain aben ta Azkue jaunaren lagunaren domua Euskaltzaindiaren bizkaŕ bijoa.

2. Euskaltzañen txostenak idazti-kuluz askotzen diranean, uŕgazleai ere bidali beaŕ zayen erabakia aŕtu da.

3. Euskaltzaindiak iñoiz lan gaŕantzi bat argitaratzekoan, olako edo alako euskaltzañaren idazti edo idazti zatia dala, aitoŕtu beaŕ ez dala, baizik Euskaltzaindi bakaŕ-bakaŕena, erabaki da aoz betez.

4. *Eskutitzen irakuŕketa*. Hulembeck-ena, deduzko euskaltzañaren izentza aŕtu duela esanik, ta alduanaz gogoz lan egingo duala Euskeraren alde. Lekarozko Joakin Ezkieta-rena, *Lorestia* gai dala, Schuchardt-ena alemaneraz, Aita Lezorena, Aita Juan R. Laŕinagarena aita Zabalatzaz, Barandiaran ta Manuel Lekuona jaunenak, onako onek esanaz, Durango'ko Euskal-egunetarako eman nai zitzayon lanaz zamatzen ez dala.

5. Euskal-egunoy etarako Oŕmaetxea Jesusen La-

gundikoari lan auxe egotzi zayo: Euskal-neurtizbide ta oleŕkintza. (Métrica y poesia vasca). Manterola Gabireleri, Durango-eŕiburuko seme ospetsuen itzaldia.

6. Mr. Marien-i erantzun: Euskaltzaindiak guztizko begi onaz ikusten duala bere lan edeŕa «La Tombe basque», ta Euskaleŕian idazti ori azaldu ta aŕtu dedin, berak ta Eusko-Irakaskuntzak alegin egingo dutela noski.

7. Colins-jaunak eskeñi dituan gutunak aŕtu, bañan adierazo garesti-xamaŕak dirala, ta merkexiagoko biderik ez ote dan.

8. Euskal-egunetarako autu-ta dagon batzoŕdeari eskubide oso-osoa ematen zayo, egun ayek ondoen atontzeko.

9. Euskaltzaindiaren sorozpidez Parisen dagon Apraiz ikasle azkaŕari galdetu: Alemanira datoŕen uŕtez joango ote litzaken bañan arlo onek Aita Polikaŕpo Iraizoz-enarekin zer ikuste baduelako, erabaki osoa uŕengo batzaŕaldirako laga da.

10. Colins - ek Euskaltzaindiari saldu dizkiyon idazti, eskutitz ta gutun xortaren adi-leŕoa Maidagan ta Oyaŕzabal jaunak atera bezate, ta Euskaltzañai bidali.

11. Oyartzungo Kaputxino Aita Eusebiok argitatzen duen euskerazko ingi txiki batetzaz, Azkue jaunak Euskaltzaindiari dasayo: (berau, Eguskitza ta Intzagarai batzoŕdekideen aburuz) Eusebio Kaputxinoari, auŕerontz ezertan abiatu baño len, galdetu zayola: *a)* zenbat eusle dituan ingitxo oŕek *b)* zenbateko domua dakaŕen beroŕen argitalde bakoitzak ta *c)* on litza-

kela, Euskaltzaindiaren idazkeraz ingitxo ori azaltzea. Euskaltzaindiak aitzakotzat artu du, Azkuek dasana.

12. Euskaltzaldiaren erabakiz, emendik aurerontzean, Bareño ta Oyarzabal langile azkar ta adoretsuei, Azkue jaunak eskatuko diye astero-astero, eren zer ta zenbateko lanen txostena; ta lanak dakarten mamiyaz sariya ere emango zaye.

13. *Estudios Vascos* edo Euskal-Irakaskuntzak Euskalerriko eri, ibai, mendi ta enparau izenak Euskaltzaindiari bidali dizkiyo, Euskaltzaindiak zuzen deritzanaz, artez edo onetsi ditzan. Euskaltzañak, zein eridiko diranez, lan onen zatia artu dute.

14. Kanpion jaunak euskal-mintzokeraren idazti edo liburutxo bat argitaratu bear litzakela, diyo, Euskaltzañak oretan ere daukate iritxita gogoa, bañan ez da oretzaz erabakirik artu.

Ta besterik ez da, otoitzaz amaitza eman zayo batzaraldi oni.

Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1921'ko Garagarila'ren 27'an.

Euskaltzain abek batzarera bildu ziran; Azkue, maipuru, Urkixo, Kanpion, Lakonbe, Landeretxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Lhande, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Aita Lhandek, Prantziko Tolosan Gabel jaunak izan dituen euskeratzazko itzaldi mamitsuen xea-

tasun dager. Euskaltzaindiak gogoz entzun du Lhande jaunak dasana, ta bereziz noski Tolosako Ikastetxe-nagusiko Lendakariyaren asmoa, alegia, beronek alegin egingo duela, *Licenciature*-ko jakin-maĺako beaŕbidetan euskerazko ikastaroa saŕtzeko.

2. Buenos-Aires'en dan Aita Soloetak euskeraren batasunaz zerbait idatzi du noski, *Baskonia* deitzen dan ango aldirokoan; ta bere lanari akets edo txosten jaŕi dezayokenari *1000 peseta* eskeintzen dizkio. Euskaltzaindiari auxe idazkiz dagerkio. Onek erabaki du: aŕen egiteko Aita Soloetari bere lan ori bidaltzeko, ta Euskaltzaindiak gerokoa aburutu dezakela.

3. *Eskutitzak.* Buenos-Aires'ko *Laurak-baŕ*'ena, bere zuzenbatzoŕdea uŕengo uŕterako nola antolatu dan adieraziaz. Eskeŕak ematea erabaki da.

Edouard Champion—Onek «Atlas linguistique de la France» Euskaltzaindiari eskeintzen diyo. Ez dala beaŕik erantzutea, erabaki da.

Ramón Menéndez Pidal jaunak dasa, Euskaltzaindiak bidali diyon izenpena gogoz aŕtu duela.

F. Staud' ek liburu edo gutun batzuen eskeintza. Ezetz.

Odon de Apraiz gazte askaŕ onek dasa, Euskaltzaindiaren berekiko nayaren beŕi baduela; Udaran Ondaŕoan izango dala, ta anditxek erantzungo duela.

4. Aita Lezok egin dituan itzaldien txostena Eguskitza jaunak irakuŕi du; ta berau ontzak artu-ta, aita Lezori itzaldi ta txostena bidaltzea, Euskaltzaindiak erabaki du.

5. Eusko-ikaskuntzak esku aŕtean dakaŕen *Mapa*, naiko uts dariona Euskaltzaindiak deritza. Aliketa utsune oyek bete, ta lan orixe atalka ta pitinka antolatu aŕte, Euskaltzaindiak ezin ezer uŕgatzi dezake.

Altube Euskaltzain jaunak oŕitxo egoki bat ageŕtu du, Euskal-eŕian, euskal-izenak bildu, nolaz esan, nolaz aldatu ditezken jakiteko. Auxe da oritxo oŕen era:

Pueblo — Nombre y apellido del informante — Español — Definición — Diccionario { uso euskerico puro / uso eusko-erderico

Euskaltzaindiak aitzakotzat aŕtu du.

Ta berandu izan-da, batzaldia jaiki da, oizko otoitzez.

Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian 1921'ko Garagaŕila'ren 28'an.

Batzaŕaldira datoz euskaltzain abek: Azkue, maipuru, Urkixo, Kanpion, Lakonbe, Landeŕetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Lhande, Intzagarai; uŕgazlerik batez.

1. Oizko otoitz ostean, kisa-aldatza artu da aŕlotzat, uŕte bitik uŕte bira, Euskaltzaindiak, arauetan daukanez, kisak aldatu ta beŕitu beaŕ ditu. Oraintxe garai dagokio, ta Maipuruak orixe dager. Eleizalde euskaltzain jaunak, gaxo dala-ta, ezin etoŕi dala gastigatu du; bañan iru Kisarako, Buru, Zadoŕlari, ta

Gutuntzaintzarako, bere autaŕkiak bidali ditu. Lenbiziko txandaz Euskaltzain-nagusigoa autaŕkitara jo da, ta onela zatituak etoŕi dira:

Azkue jaunari	9
Kanpion jaunari	1
Utzik	2

Uŕena euskal-ikeŕ-saĺaren burua aukeratu beaŕ zan, ta autaŕkiak onela etoŕi dira:

Kanpion jaunari	10
Utzik »	1

Yago-saĺaren buruarena uŕen, ta autarkiak:

Eleizalde jaunari	11

Zadoŕlaritzarako autaŕkiak onela ziran:

Intzagarai	9
Olabide jaunari	1
Altube jaunari	1
Utzik	1

Diruzaitzarako:

Altube jaunari	9
Urkixo jaunari	1
Utzik	1

Gutuntzaitzarako:

Lakonbe jaunari	9
Urkixo jaunari	2
Utzik	1

Beaz, bi urtetarako Euskaltzaindiaren kisatza auxe izango da:

Azkue: Buru
Kanpion: Ikeŕ-sail-buru
Eleizalde: Yago-sail-buru
Intzagarai: Zadoŕlari
Altube; Diruzai
Lakonbe: Gutuntzain

2. Altube jaunak, euskal-batasunaz, Euskaleŕian auxe zabaldu beaŕ dala, diyo:

«Orain aŕte euskal-batasunari dagokion gayez euskaltzaindiratu diran idazki-lanak argitaratu ta ikasiz gañera, batasunezko ebatzi astun ori aŕtu baño len, Euskaleŕi osoan, Euskerea beronen agerkera guztietan zelan bizi dan, ondo eta zeatz ezagutzea gauza beaŕ-beaŕekoa dabela Euskaltzaindiak erabaki du; eta oŕtarako idatz-itunketa eta beste bide egoki batzuk aŕtzea ere bai.»

Euskaltzaindiak abo batez bayetz ta bayetz diyo.

3. Euskaltzaindiak aŕgitaratzen duen «Euskera» beste izpaŕingiyaz trukatu beaŕ da, ta batez ere euskeraz zeŕbait aldioroz argitaratzen dutenaz. — Bereziz aipatzen dira: *Baskonia-Buenos-Aires=Revista de Filología Española - Almagro 26-Madrid.*

4. Durango-ko Euskal-Egunetarako Zuberoako dantzari txikiak ekaŕtzea erabaki da. Ara Aita Lhandek dakaŕen abekiko domua:

6 dantzari ta txistulari 1

Dantza egunka. . .	50 franko	(bakoitzaka)
Joan-etoŕi egunka .	25 franko	(id.)
Pasaporta ta visa.	(ez daki)	
Bide-txaŕtela. . . .	(ez daki)	
Durangoko egoitza	(ez daki)	
Jantziyen aloketa .	20 franko	(bakoitzaka ?)

5. Lendik erabaki zan bezela, Muñoa-taŕ Migel jaunaren Ikastetxeko sariketarako zeŕbaiten sorozpide eman beaŕ da: zenbaterañoko saria eman litekean, Intzagarai euskatzañari eskubide egotzi zayo.

6 Napaŕoako Aldundi beŕiari sorozpidea eskatu beaŕ zayo; auxe eskatzeko, Kanpion jaunak idazki bat egin bezayo. Berdingo eskaria Donostiko Udalari.

7. Gazteizko Eliz-baŕutirako Kristau-ikasbidearen argitaratza, Euskaltzaindiari mami-mamiko gauza zayo. Zerbait jakiteko, orixe aŕtezten dabiltzanengana jo beaŕ da.

8. Kristau-doŕin auxe Iruñako Gotzai jaunari eskeñi, bere aŕduraz napaŕeraz ipiñi-ta, bere baŕutiyan zabaldu dezan.

9. Donostiko *El Pueblo Vasco*, *La Voz de Guipúzcoa* ta *La Constancia*-ri eguneroko euskal-idazkiñoak eskeñi, ta Iruñako *Pensamiento Navarro* ta *Radika*'ri bidali.

Ta beste arlorik ez da, batzaŕaldia jaiki zan, oizko otoitzaz.

Zabalak idatzitako adizpiakera batzuetzaz zerbait

Gaur bakaŕtzat darabilgun «zu» (aditz-auŕean «za edo z») beñola «gu» baizen askaŕa izan zala geyen-geyentsuok uste dogu.

Norbaitek ezetz esan dau; baña onetan okeŕ dago.

Bizkayereak «*za*» ri dagokiozan bere adizpiakerak galdu ebazan eta gai onetzaz argi andirik ezin emon leikegu; baña beste euskalkiak bai, «*za*» askaŕa zala argiro darakuse. Giguzkoeraren det, d-it-ut, nuan, n-it-uan, ga-it-uzu ta abaŕ; laburdieraren ditut, nituen, gaitutzu; zuberotaŕen dütüt, nütian, gütüzü ta bizkaieraren dau, dauz, neban, nebazan, gozúz (gâuzuz) gozuez, gauz, gabez oaŕtu bediz. Adizpiakera oneik bata-bestez erkatu ezkero, bizkayeran «z» atzizkiak dagian zeregiña berbera, beste euskalkietan «*it*» erdizkiak egiten dauala edonoentzat argi dago; baña iru euskalki oneik «*ga*»'ri lez «*za*»'ri be jasale askaŕari dagokion ikuŕa iratsi eutsoen; za-it-ut, za-it-u etc (zuberotaŕez, zütüt, zütü).

«*Za*» au jatoŕiz «*ga*» baizen askaŕa izan ezpa'litz, jasale askaŕari dagokion ikuŕ ori ez eutsen gure asabak ezaŕiko. Iru euskalkiak ori egin daben ezkero, «*za*» nozbait «*ga*» baizen askaŕa izan zala ezin ukatu geinke; baña au onelan izan ezkero, bizkaieran «*za*» ri egokiozan eta galdu ziran adizpiakerak: «*zaudaz*», *zauz, zauguz, zabez*», izan zirala be argi asko dagoala dirudit.

Astarloak aitaturiko beŕeun eta sei adizpiakerak Mr. Lécluse'ri adierazteko asmoz egin eban lan onetan, Zabalak adimen zolia darakus: baña beti zuzen ibili zanik ez dot uste. Bein onelan idatzi eban: *salduten zaitut, zaituet;* gero, *salduten zaust, zaustaz.* «Os vendo (a Vos) = salduten zaitut (zaudaz)» izan ezkero, «os me vende = salduten zaustaz» izan beaŕ eta alderantzira, «os me vende = salduten zaust» izan ezkero, «os vendo = salduten zaut» izan beaŕ.

Astorloak «Discursos Filosóficos» deritxon bere liburuan. «*il zau ta il gau*» aitatu ondoren, beste gauza batzuen artean, auxe diño: «zau ta gau» oneik oñatiaŕ eta beste eŕi gitxi batzuetako euskaldunak erabilten dabez. Beste euskaldunok onetan oñatiaŕak eredutzat aŕtu beaŕ geunkez.

Antziña ez dala, nire aiskide euskaltzale ta euskalari batek, auxe iñostan: Astarloa oŕetan zuzen dago. «*Ga ta za*» eurenez askaŕak ziran eta dira ta eurenez askaŕak, diralako, ori iragaŕiko dauan beste ikuŕ beaŕik ez dauke. «*Il gau ta il zau*», ondo dagoz: euskereari dagokiozan adizpiakerak oŕexek dira ta oŕei «z» gañeratzea, asto bati txalma bi ipintea beste da. Aiskideak ori esan eustan.

«*Ga ta za*» eurenez askaŕak ez direanik ez dot esango; baña nire aiskidea oŕetan okeŕ egoala, bai. Eta ain zuzen be, «*ga ta za*» eurenez askaŕak direalako, orixegaitik «*il gau ta il zau*» dazaugun euskereari dagokiozan adizpiakerak ez dira. Bizkayeran aditzari irasten dautsagun ikuŕ au (z) berenez bakaŕa dan jasalea askaŕ egiteko ba'litz, «*ga ta za*» ikuŕ onen beaŕean ez legokez; baña jasalea berenez askaŕa danean, aditzean bertan ori iragaŕteko, beste izkuntza batzuk ez, baña euskereak bai, euskereak aditzean ikuŕ ori erabilten dau. «*Ga*» berez askaŕa dala-ta

beste barik, «*il gau*» ondo ba'lego, izaŕak be askaŕ da-ta: «*izaŕak ikusi dogu*» ondo ta zuzen legoke; baña au euskalgaizto da-ta, gaur darabilgun eta idaztiz ezagutzen dogun euskereari dagokiozan adizpiakerak «*il gauz, il zauz*» direala be ageri da.

Baña oñatiaŕ eta beste euskaldun batzuk be «*il zau, il gau*» esaten ei-dabez. Au zelan ete-da, ba? Euskaldun oneik aitaturiko adizpiakerak moztu egin dabezala dirudi. Eta ziñez, bizkayerea darabiłen beste euskaldun guztiak «*gozuz*» (gauzuz) *gozuez*» esaten dabez: beste euskalkiak be ga-it-uzu, za-it-ugu ta onelakoak beti ikuŕ askaŕakin darabiłez. Bat edo bestea: edo euskaldun geyen-geyentsuak adizpiakera onei jasale askaŕaren ikuŕa beaŕizan barik eta okeŕ iratsi eutsen edo oñatiaŕak ikuŕ ori galdu egin dabe. Gauza bi oneitatik eŕezena zein ete-da? Euskaldun gitxi batzuk «z» ori galtzea askozaz be eŕezago da-ta, obeto siñetsi beaŕ dogu, beste enparau guztiak, eginen okeŕerako alkaŕ artu bai'leben, beaŕizan baŕik «*z ta it*» oŕeik aditzean sartzen ekin eutsela baño. Oñatiaŕak «z» ori noz galdu ete-eben? ¡Batek bakił: beaŕ ba-da, «*zu*» askaŕa izatetik bakaŕa izatera ekaŕi zanean, «*za*»'gaz asten ziranai «z» atzizkia kendu eutsoen eta gero onein antzera «*ga*» rekin asten diranak be galdu egin eben.

Oñatiaŕak arazo onetan okeŕ ebiltzala esango ete-dogu? ¡Ez olakorik! «*Za*»'gaz asten diran adizpiakera oneitan beste enparauak baño zuzenago ebiltzala dirudit. «*Zu*» bakaŕtzat artu ta «*zuek*» sortu zanean, aren adizpiakera oro onentzat itxi ta «*zu*» rentzat, oñatiaŕen antzera, jasale bakaŕari egokiozan adizpiakera baŕiak sortu ba'lira; *orduan* ori egin ba'litz, gaur euskeran daukagun beste naste txaŕ ez genduan eukiko; baña, zoritxaŕez, olakorik ez zan egin: euskaldu-

nik geyenak beste bideari jaŕaitu eutsen eta emendik sortu zan nastea arildu eziñik, loŕik asko daukagu.

Bizkayeraz «*zu*» askaŕari egokiozanak: «zaudaz, zauz, zauguz, zabez» izan zireala esan dot. Oneik «zu» bakaŕarentzat itxita, «zuek» entzat: «*zauedaz (zabedaz) zauez, zaueguz, zaueze*» sortu ebezan euskaldun batzuk; baña besteen batzuk oŕei ez eutsen ain ondo eretxi ta «*zauedaze, zaueze, zaueguze, zauezie*», obak ziralakoan-edo, onein alde egozan. Onelako adizpiakerak Bizkaiko euskaldun batzuei gaur egunean be entzuten yakez. Guztiok okeŕ sortuak dira-ta, arazo onetan zuzen ebiĺanik iñok ez eban uste: guztiak kezkaz beterik ebiltzela dirudi. Adizpiakera onei, jasale askaŕaren ikuŕ ordez, egiĺe ta artzaĺearena iratzi eutsen eta onako okeŕa egin ezkero, nai-ta-ez urduri ta artega ibiĺi beaŕ.

«*Zu*» bakaŕ egin zanetik auŕera, bizkayerazko «z», jasale askaŕaren ikuŕ onek, beste adizpiakeretan ez, baña «*za*» gaz asten ziranetan bai, bere iñarkun eta ikuŕpena galdu ebazan. Andik auŕera: «*zaudaz, zauz, zauguz, zabez*», atzizki ori gora-bera, jasale bakaŕaz erabiĺi oi ziran. «*Za*» ori askaŕa be ba-zala ¿zelan adierazo? Bizkayeran jasale askaŕarentzat «z» ori baño beste ikuŕik ez egoala-ta, bizkaitaŕak gipuzkoerari bere «*it*» eskatu ta artu eutsen. «*Zaitudaz, zaituz, zaituguz, zaituez*» berealaxe sortu ziran. Adizpiakera oneik jasale askaŕaren ikuŕ bi daroez; baña bakaŕari buruz, «*zaudaz*», «*zauz*» entzutera egin ziran belaŕiak, onenbestegaz be ez ziran ase ta beste ikuŕ bat gañeratu eutsen: zaituedaz, zaituez, zaitueguz, zaitueze (zaituzie). Gaur Bizkayan zabalen dabiltzanak onexek direala uste dot. Zoritxaŕez, auŕerago aitatu dodazanak baño be txaŕagoak dira: «*e*» bat

gañetu yake; baña «*e*» ori egile ta artzale askaŕaren ikuŕa da beti, jasalearena bein bez.

Beste bizkaitaŕ batzuk azkenengo aitatu dodazan oneik baño gipuzkoerak daukazan antzekoak politagoak zirala-ta, zaituet, zaitue, zaituegu zaituê obetsi ebezan eta onexek darabilez. «*Zaudaz, zauz*» jasale bakaŕarentzat artzeak buruko min laŕegi emon eutselako-edo, bizkaitaŕak adizpiakera onei iguin eta goŕoto artu eutsen; beintzat, etxetik jaurti ta euren ordez «*zaitut, zaitu*» etxeratu ebezan: aek otzez-edo il ziran eta beste oneik bizi dira.

Beste euskalkiak be arazo onetan bizkaikoa baño asko zuzenago ez dira ibili. Bizkayereak beste oŕeitatik «*it*» artu eban lez, oneik be bizkayeratik «*z*» artu ete-eben susmua daukat. Norbaitek esan daiket: ¡Bai zera! adizpiakera jasale ta artzaledunetan, jasale askaŕaren ikuŕtzat euskalki oŕeik «*zki*» erabili daroe: erdizki-atzizki au saŕi moztu egiten da; «*zki*»'ren ordez «*z*» erabili oi da: augaitik bizkayerara jo beaŕik ez dabe euki.—Baleite; baña «*z*» oŕek, naiz bizkayeratik artua naiz «*zki*»'ren ondakiña dala, orain aitatuko dodazan adizpiakera oneitan bizkayerazko «*z*» ren iñarkuna berbera dauko ta ori naiko dot.

«*Zuek*» sortu zanean, gipuzko ta laburdieraz adizpiakera oneik asmau ziran: *zaituztet, zaituzte* etc.; zuberoeraz, zütiet, zütie etc. Bizkayereak bere adizpiakera oneitan beste euskalkien «*it*» sartu eban; besteok bizkayeraren «*z*»; baña oneri gitxi eretxita-edo, bizkayereak lez beste euskalkiok be egile ta artzale askaŕaren ikuŕa gañeratu eutsen. «*Te*» egile ta artzale askaŕaren ikuŕa dan ezkero, «*zaituztet*» eta onen antzekoak baño «*zaituzt*» eta onen idekoak zuzen eta egokiagoak izango zirala dirudi; baña euskaldun oro euskereari egokion bidetik urten ziran eta gauza zuze nik ez eben egin.

Yasale askaŕa ta egiĺe bakaŕa euken adizpiakera onei, beaŕizan barik, egiĺe askaŕaren ikuŕa iratsi eutsen ezkero, «*za*» ori jasale bakaŕa zanean be, askaŕ -ikuŕa erantsi aŕen oben andirik ez ebelakoan egiten -edo, «zaitut... zaituzte» esan eben. «*Zaitute*» be aski zala dirudi; baña bein aldatz bera asi ezkero, onelako zirtzilkeriai ¿nok jaramoten dautse? Eta bein ona ezkero, «*z*» au, ideko ziran enparauetara, izuŕia oi dan lez zabaldu zan. Oŕ daukaguz: gaituzte, dituzte, ba'zenituzte, ba'lituzte ta abaŕ. Oŕaitik be, al ba-gaitzazte, zaitzazte eta onelakorik oraindik ez da sortu. Gaitz erdi da; baña ori barik be okeŕik asko daukagu eta euskeran sartu yakuzan okeŕ oneik zuzentzea, dirudian baño gaitzago da.

Gaur bizkayeran zabalen darabilguzan «zaitut eta zaituedaz»'en ordez, «*zaudaz* eta *zaitudaz*» zuzenetsi ezkero (eta zuzenagotzat etsi beaŕ direala dirudi, «zaudaz» esaten zalako ta «*zaituedaz*»'en «*e*» ori okeŕ iratsia dalako): adizpiakera oneik zuzenetsi ezkero, Zabalak dakaŕen: «*salduten zaust*» en ordez «*zaustaz*» eta onen ordez «*zaitustaz*» izango litzake eta onein antzera beste ideko enparauetan be. Oneik baño Zabalak idatzi ebazanak egokiagoak dirudie; baña «salduten zaust» obetsi ezkerokoan, «*zaitut*» en ordez «*zaut*» eta «*zaituet*» en ordez «*zaudaz*» be obetsi beaŕ litzakezala deritxat. «*Zu*» bakaŕtzat artu zanean, bere adizpiakera askaŕak «*zuek*» entzat itxi ta arentzat jasale bakaŕari dagokiozan lakoak sortu ba'lira: orduan ori egin ba'litz, gaur guztiok obetsiko genduala uste dot. Zuzenen izango zan au, tamalez ez zan egin. Orain oŕetarako berandutxu da; baña naste txaŕ oŕeik kendu nai ba-doguz, orain be biderik eŕez eta labuŕena orixe dala-ta nago.

EGUSKITZA

103 CONJUGACIONES DEL PRESENTE PERFECTO DE INDICATIVO
EN EL DIALECTO BIZCAINO

O

MUESTRA DE LOS 206 PRESENTES DE INDICATIVO
QUE DA AL BASCUENCE

D. PABLO PEDRO DE ASTARLOA

ESCRITA POR

Fr. J. M. de Zavala

PARA MR. FL. LÉCLUSE, CATEDRÁTICO DE LITERATURA GRIEGA
SECRETARIO DE LA FACULTAD DE LETRAS
CABALLERO DE LA LEGIÓN DE HONOR

EN ZARAUZ, EN 17 DE FEBRERO DE 1829 AÑOS

Explicación de la inteligencia de los 206 presentes de Indicativo que el S.or Astarloa dice que tiene el bascuence.

EXPLICACIÓN DE LA MENTE DE ASTARLOA

El S.or Astarloa (Apolog. pág. 149) divide el verbo en activo, pasivo y mixto. Activo es el que significa la acción ejecutada por uno y terminada a otro: pasivo el que significa pasión que uno padece causada por otro: y mixto el que significa acción que se termina al mismo que la hace. En la página VIII del prólogo dice: «llegué a contar en cada uno de nuestros verbos ochenta (inflexîones) más que Larramendi en la voz activa, y otras tantas en la pasiva, resultando el total de doscientas y seis conjugaciones, todas ellas necesarias para que tenga el verbo las perfecciones de su destino.»

Euskalki ontan berean arkitzen diŕugu Napaŕo'ko beste euskalki guzietan arkiŕuko diŕugun asko-egile guziak. *T* uts-utsa aditz aldakoiaren asko-egiletako: *tut*, *tuzu*, *tu* itzetan. *Z* uts-utsa gendezuke itza *gendezuzke* egiñez. *Tzi* askoegilea; *duratzizu*, *duratzit*= dizkidazu, dizkit itzetan. *Zki* asko-egilea *zezkidan*, *dezkizut* eta beste askotan. *It: zaitut*, *zaitu*, *gaituzu* ta beste askotan. *Tza: datzat*, *datzazu*.

Etxaŕi-Aranatz'ta Ergun (ergoyena) ko euskera-aditza.

Zenbait garaietan irudi du euskalki onek lengoa bera, baño ala guztiz ere beste euskalki bat dala esa-

teko añe bereixtasun ba-duala deritzait. Burunda'ko euskeran ezta *i̇* ta *ñ*'rik, emengoan beŕik asko.

Burunda'n	*Etxaŕi ta Ergun'en*	
Naiz	Neiz	Naiz
Zaa	Zaa	»
Da	Da	»
Gaa	Gaa	»
Zai	Zarie	»
Dia	Dia	»
Durazu	Niezu	Dezu
Dura	Dut	Duut
Durazai	Niezubie	Dezie
Durabai	Duutie	Duutie

Burun.	*Etx-Ergun'en*	*Etx-Ergun'en*	*Burun.*
Zaida	Dakit	Nintzan	Nintzan
Zaizu	Dakizu	Ziñen	Zinan
Zaio	Dakio	Zan	Zan
Zaigu	Dakigu	Giñen	Ginan
Zaizai	Dakizubie Dakizie	Ziñeen	Zinain
Zaie	Dakiobie	Zien	Zian
Nuke	Naka		
Zenduke	Ziñaka		
Luke	Laka		
Genduke	Giñaka		

Ori guzia ala izanik ere, garai batzuetan irudi du noizpait izan dutela aidezkoa ta ez txikia, ta ori batez ere Olaztikoari begiratzen ba-zaio irudi du. Olazti'koan *ero* sustraia duten garai guzietan Etxaŕi-Ergun'goan dute *oo: Doot, Doozu, Doo. Noon* ango *neron*'en ordez, Zoon esaten dute emen, Olazti'ko Zeron'en ordez. Olazti'ko *Ura* sustraia, emen egiten dute beti *uu;* an lura = lira esateko, ta emen *Luut;* an *Zurain* eta emen *Zuutien*, zidaten esateko.

Ala ta guztiz ere, orain aldian bi euskalki diralą diot, ontan Bonaparte'gandik berexiko ba-naiz ere. Ara zergatik. 1.ª Garai bat bakaŕik eztute oso berdiñik. 2.ª Bukaerak ere oso berexiak dira garai guzietan.

Nolako bukaerak difu, ba, onek? Etxañi-Aranatzen bestetatik berexia du aunitzezko lagunarena. Emen du *zubie* ta Ergun guzian beñiz *zie:* etoñi *nakizubie* Etxañi'n, eta nakizie Ergun guzian, etoñi natzaitzute esateko.

Irugañen lagunarena Etxañi'n egiñen dute *bie: Nakiyobie* = nakiote esateko ta onela gipuzkoeraz *ote* bukaera duten guziak Etxañi'n esaten dituta *obie*'kin; eta gipuzkoeraz *ute* bukaera dutenak *ubie,* ta gipuzkoeraz *date* egiñen dutenak Etxañin *uutie*-Azkeneko bukaera au berdin-berdin egiñen dute Ergun guzian ere. Baño gipuzkoerazko *ote* bukaera dutenai Ergun'en *kiye* edo *kiyue* ematen diote Aditz Aldakaitzetan, eta Aditz Aldakoietan beñiz *oore: doore* Lizañaga'n, eta (Toñano) Doñaun; Unanu'an ordea *orue: dorue.*

Bonaparte Eñegegai jauna oartu zan añigañizko bukaera auetaz «La Revista Euskara» Iruña'koan zionaz, eta onelakorik ez zuela iñon arkitzen zion. Sara'ko baztañen batzuetan arkitzen dirala emengo *oo* sustraitako duen aditz garai oien antz-antzekoak eta berak (itxuraz) berdiñak zirala uste izan zuan. Eta itz bat oso-osorik berdin-berdiña da *Doot.* Baño Bonaparte berak dionaz Sara'n esan nai du *dit,* Euskalki ontako *doot*'ek esan nai du ordea *diot;* eta *dit* esateko euskalki ontan esaten dute *Duut.* Eztira ba berdiñak eta askoz gutxiago beste emengoak bezala diralakoan jartzen difunak.

Euskalki onen sustraiaz bi itz. Len esan duten *uu* ta *oo* sustraiaz landara Euskalki onen Aditz Aldakaitzak garai geienetan *ki* deramate sustraitako. Dakit = *zait* esateko; lakit = litzait esateko; nakizun = nitzaizun esateko ta ala. *Ki* ori nondik sortu zifeken ikusiz, Kampion Euskaltzain Jaunaren Gramatika nasten ari nintzen auñeko egun batean. Ontan Lakuntza'tañ Bi-

zente Unanu'ko Apez jaunaren eskutitz edo karta bat etoŕi zait eta artan esaten dit «Doŕaun aitu dut eta oarturik nago *egon* aditza *euki* bezala artzen dutela. Aza onak egon dauzkizie? (Aza onak dauzkatzue?) Belak egon dauzkizie=Ba-dituzue argizariak? Onek irudi du laterazko *pecunia est tibi?*» Oneraño nere adiskide oŕek eŕderaz esaten zirena. Orduntxe ikusten nuen Kanpion jaunak diola; bere begi luzeaz zerpait sumatuz bezala: «Ez liteke—dio berak—eziñazkoa bezala auŕetik jo, *egon* aditza ez dela izan aditz aldakaitzaren laguntzale. Eta ortik *ki* sustraitako gelditzea. (1)

Jaunak: oŕa ba non dagoan nere ustez ere *ki* oŕen jatoŕia, *egon* aditzak *euki* edo *est mihi* esan nai duan ezkeroz.

ARBIZU'KO EUSKARAZ. Arbizu'n euskalki au bera dute bukaeraz; baño sustrai guzia ezpada ere, geientsua beintzat Ipaŕ-Napaŕokoa dute. Baten sustraia ta bestearen (Etxaŕi-Aranazkoaren) bukaerak artzetik sortu dan irugaŕen euskalki ori ere ikusgaŕia da.

LAKUNTZA, AŔUAZU TA UARTE'KO EUSKALKIA. Lakuntza'n asten da Bonaparte Eŕegegaiak Goi-Napaŕ Ipaŕaldekoa deitzen duan euskalkia.

Euskalki au asko euskalkitxotan berexia dago; ta bakoitzaz zerpait beŕi eman nai dizutet.

Lakuntza ta Uarte-Arakil'goa sustrai ta bukaera geientsuak berdin dituenak. Aŕuazu oien bien erdian dagoanak ba-diĩu berezko bukaera berexi batzuek. Iru eŕi auetan gipuzkoerazko *zute*, *ute* egiĩen ditute *zube* ta *ube: Duzube*, *dube; ĩuzube*, *ĩube; diozube*, *diobe*.

---

(1) Kanpion jaunak bere «Gramática Bascongada,» (1884) 638 oŕialdean: Por lo tanto no repugnaría a *priori* el que *egon* fuese un auxiliar del intransitivo. Pero que haya quedado como núcleo la sílaba *ki*, o lo que es igual, la transformadora del *Egon* (estar).....»

Gauza txiki batzuetan berexten dira. Lakuntza'n lirake esateko esaten dute *leeke* ta *lirakete* ta esateko *leekie;* Arruazu ta Uarte'en beriz *lieke, liekie.* Lakuntza ta Uarte'n esaten due: *ziñeeben* = ziñidaten esateko, ta Arruazu'n *ziñeeyen, zieyen* = zieten esateko.

Almenazko garaietan sustrai askolaria *za* gauza batez ari denerako ta *txa* gauza askoz danerako: *dezaket, detxazket* eta onela.

ARAITZ, BERA-BIDASOA TA ETXALARKOA. Araitz'en eta beste bi eri oietan itz egiten den euskera, gipuzkoerara asko ematen duana da. Gipuzkoa'ko *zute* esaten dute *zue, t* galtzen dula. Gipuzkoa'ko *dute* emen esaten da *due.* Lege au bera gordetzen du Bera-Bidaso ta Etxalar'koak. Gipuzkoa'ko *ote* bukaera, Araitz'en egiten da *ie:* diote an, eta *die* emen. Bera ta Etxalaren Gipuzkoan bezala *diote.*

Etxalar ta Beran bezalakoxeko euskera dago *Bost Eri* esaten zaiotenetan.

BASABURU AUNDI TA ARAKIL'GOA. Iraneta'k Uarte'ren ondoan dagoalako zerpait artzen badu ere orko euskeratik, geiena Arakil guzian itzegiten dena du. Ta Euskalki onek gipuzkoerazko zute biurtzen du *zte:* Gip. natzizute emen *natzaizte,* an zaizute emen *zaizte;* Gip.'an duzute, emen *duzte,* an dizute ta emen *dizte.* Arakil'n beste gauza bat bere-berezkoa ba-du. Ta ori da Agintzazko ta almenazko garai, *Tx* sustraitako dutenak asko laburtzea. Gipuzkoerazko dezazkiozu, Basaburu ta Imotz'en detxazkiozu esaten dutena Arakil'en egiten due detxozu; eta onela esan duten garaietan *Zki* itz puska galduazi egiten diote.

Basaburu goikoan eta Imotz guzian euskalki ori bera dago baño esandako itz puska galdu gabe.

Basaburu Goiko ta Imotz'ko eri guzietan itzegiten den euskalkitxo ontan gauzazko garai geienetan ba-

diĩu bi esanera, aunitzezkoa esateko. Goi-Napaŕ Ipaŕaldeko *t* ta *zki* bi askolariak ibiltzen diĩuelako. Ala esaten dute ĩiot, eta dizkiot; ĩizugu ta dizkitzugu, ziĩizun eta zizkizun, ziĩizten eta zizkizten. Almenazko garaietan ere bi askolari ibiltzen diĩute: *tx* ta *zki* (gagai batzuetan; ortik *detxaeten* eta *dezazkieten* esatea.

Euskalkitxo ontan arkitzen da Bonaparte'k Olza'n arkiĩu zuan bereixtasun bat, guk gero Laŕaun'en, Basaburu beiko gukian eta Zubietan arkiĩugo deguna. Gipuzkoerazko dida, ziñidan, lida edo lira, eta onelako *ida* bukaera duen guziak egiĩen diĩute bi *ee*'kin: dee, ziñeen, ba'lee (edo lit) Eŕi batzuetan bi ee'n artean sartzen due *r* ta esaten due: *dere*, *ziñeren*, ba'*lere* ta ala (Basaburutxikian).

LAŔAUN'GO EUSKALKIA. Laŕaun'go ibaŕeko eŕi geienetan euskalki bera dago. Araizko *diz* asten dena emen *da* egiĩen dute. Araitz'n dizkitzuek eta Eŕazkin'en dazkitzuet (1); itz ortaz eta besteen batez oartu naiz. Lezeta'n, Azpirotz'en Uitzi'n eta Goŕitin geientsua Araitz'en bezala egiĩen da. Beste eŕi guzitan esan diĩeke aditza beintzat berdin dela. Laŕaun'go Euskalkitxo ontan gipuzkoerazko *zute* bukaera guziak *ui* biurtzen diĩute; ta gipuzkoerazko *te* bukaera beŕiz *i*. Zerate=*zaati*, dizute=*dizui*, nizuten =*nizuin*. Gipuzkoerazko *ote* bukaera beŕik lagun batez ari diranean, ala, «Joxe'ri esan diote» esateko, egiten dute *oi* bukerarekin, «Joxe'ri esan dioi» Baño askotaz danean *ote* bukeara aldatzen dute *ii*; ala: Araiz'ko ta Laŕaun'goari ardi bana eman *diote*, esateko, esaten due Araizko ta Laŕaun'goai ardi bana eman dî.

Euskalkitxo auetako aldaketa auek auŕengo begiraldian ematen dute txikiak baño ikusi dezazuen zer

(1) Araitz'ko goieŕietan ere ofela esaten da.

bereixtasuna sortzen den aldaketa txiki oietatik ara emen Goi Napaŕ Ipaŕaldekoaz ikusirik deramazkigunenak.

Arbazu'n Uarte	*Araitz'en*	*Bera Etxalaŕ*	*Basaburu'n Arakil'n*
Dizubet	Dizuet	Dizutet	Diztet
Dizube	Dizue	Dizute	Dizte
Dizubegu	Dizuegu	Dizutegu	Diztegu
Dizube	Dizue	Dizute	Dizte

Eŕazkin'en	*Laŕaun'n*	*Leitza'koa*
Dazuet	Dizuit	Dizuet
Dazue	Dizuit	Dizue
Dazuegu	Dizû	Dizuegu
Dazue	Dizui	Dizue

LEITZAKOA. Leitzan beste euskalkitxo bat dago, andik landara Areso'n eta (basaburu Txiki'an) bakaŕik itzegiten dena. Euskalki ontan Gipuzkoerazko zute egiten dute *zue* ta gipuzkoerazko ote bukaera egiten dute *oa*: diote=*dioa*, zioten=*zioān* eta ala; *te* bukaera beŕiz itzultzen due *ea*, zaten=*zatea*, dezagukete=*dezagukea*. Areso'n eta Uitzi'n berdin dute.

Erasun'en Leitzeko bukaera berak diru baño gañerakoa Basaburu Txikiko orain esatea guazenak bezala du.

BASABURU - TXIKIKOA. Ibaŕ ontan *zute*'ren ordez *zue* bukaera bakaŕik dute Gipuzko'akotik berexia. Euskalki au t'z betea da ta t'ren auŕetik i galdu egiten du aditzak beste bokalik auŕetik duanean.

Emen agertzen da Burunda'n besterik ikusi ez degun sustrai bat, *tzi*. *Latzit*, *Latzizu* eta, litzait, litzaizu'ren ordez.

Basaburu Aundikoaz esan degun *dia*'ren *ee*'zko aldaketa emen ere ba-da, ibar guziko eŕietan.

Napaŕoko beste iñongo alderditan ez bezalako

esanera ibaŕ ontan arkiĩu dut. Izki batzuk, zenbait garaietan, eztiĩezke esaten diĩuten eran ezaŕi. *Dira* edo *dire* esateko esaten dute *dere d* bat, *t* den, edo *d* den ezin igaŕi diĩekena. *Nadin* esatekoan batek ezin igaŕi dio *din*'en i ori egiĩen dute *e* ta *i*'ren bitarteko bat eta azkeneko *n* belaŕirako da *ñ*: *Nadeñ* (Ezkuŕa). *U* izkiarekin beste ainbeste gertatzen da zenbiĩ itzetan: ba-giñu, ba-ziñu ta olako batzuek esatean belaŕira dirudi: *giñou*, *o* ta *u*'ren arteko izki bat. Bonaparte ere oartu zen ortaz Labain'en (1) «*U* biurtu diteke *o*, —dio—baño aldaketa batere oiĩu gabe au, Bost Eŕietako euskalkitxoa goi-napaŕ ipaŕaldekoa duen, Basaburu-Txikiko lau eŕietako batean, Beinza Labayen'en arkiĩu dut. An arkitzen da ba: *duzo* duzu'ren ordez, eta *zuzo* zazu'ren ordez» Bonaparte'k artu zun, ba, *u* tako, ez *u* ta ez *o* deritzaiten ots ori.

Ibaŕ ontako eŕi guzitan eta Bertiz-Aranan gipuzkoerazko *diotet* esateko esaten due *diot* (bati bezala askori). Uts ori betetzeko *ĩut* ere esaten dute Bertiz'en. Ezkuŕa'n ez da ori bakaŕik. Aunitzezko garai guziak batezkoak bezala ibitzen ditute. Zaituztet esateko *zaiĩut*, dizuet esateko *dizut*, dizkitzutet esateko *ĩizut*, eta onelaxe dute garaiyik geienetan.

BERTIZARANA'KOA. Basaburu txikian oraintxe ikusi dugun euskalkitxo bera dute Bertiz'en ere. Eta nere ustez, ez dute beste bereixtasunik baizik au. Basaburu'ko *ee* edo *ere*, Bertizarana'n egiĩen dute *ire* garai geienetan eta bakaŕen batean *ide*. Ara, *direzu*, didazu esateko; *ziñiden*, ziñidan esateko.

Auŕeko bi euskalkitxo auetan eta Sunbiĩa'koan

(1) L'*u* peut encore se changer en *o*, mais je n'ai rencourré cette permutation, tout à fait insolite, qu'a Beinza Labayen, une des quatre localités de la vallé du Petit Basaburua qui font usage du sous-diatecte haut-navarrais septentrional de las Cinco Villas. On y trouve en effet: *duzo* (tu l'as) pour *duzu*, et *zuzo* (aie-le) pour *zazu*.

beste aldaketa oraindaño ikusi ez dugun bat egiten dute. *Ziñi* adizkiaren ondotik *ze*, *zi* edo *zu* eldu ba'dira *ziñi* adizkia biurtzen dute *zin* eta ala *ziñiztidan* edo ziñizteren esan beaŕean, esaten dute *zinztidan*, (Sunbi la'n), *zinzteren*, *zinzion*, *zinztiun*, eta alakoak. Zi-ñi-zi'ren eta bere antzeko itzetako iru *i* bata bestearen ondokoak belaŕira txoŕotxegi ematen dutelako izango ote da ori?

SUNBILA'KOA. Orain ikusi dizugun bi euskalkitxo auen beste aizpa bat da ikustera goazena; baño aien aldean askoz aberatsagoa. Euskalkitxo ontan *tzi* ta *tzai* bi sustraiekin egiten dizute garai ber-berak, berdin esaten dute *litzit* nola *latzit*, *litzaizkit*, nola *latzizkit; zitzaiten*, nola *zaiten*, *zitzaizun* nola *zaizun* garai bera esateko. Ta garai au da euskalki onek duen gauzarik gogoragaŕienetakoa. Etxalar'tik landara ez dut napaŕipaŕaldeko euskalkietan olakorik arkitu. Len-lenagoko garaia egiten dute emen Oraingo'ari *n* bat erantsitzeakin bakaŕik. Ara emen:

Oraingoa.	*Len-lentxagokoa*	*Etxalaŕen*
Zait	Zaiten	Zaian
zaizu	zaizun	zaizun
zaio	zaion	zaion
zaigu	zaigun	zaigun
zaizue	zaizuen	zaizuen
zaiote	zaioten	zaioten

Gipuzkoerazko len aipatu dugun *ida* bukaera emen egiten dute *ize;* zitzaidan = *zitzaizen;* baño ez beti; ibiltzen dute *ida* bukaera ere, baita *ira* ere: *zinztidan*, *zinztidaten*, *lirakete*, *lizirakete* itzetan. Euskalkitxo ontaz egin nezazken beste asko oaŕ ez luzatzeagatik uzten dizut, ta berau diot euskalkitxo geienez.

ARANO'KOA. Eŕi ontako Euskalkitxoa oso ikusgaŕia da, batez ere bere aditz aldakaitzaren bereixtasunaz.

Ara emen bere bertako garaia.

Naz=Naiz
Zee=Zera
Da=da
Gee=gera
Zeete=Zerate
Dia=Dira

Za ta *tza* sustraiaren ondotik euskalki ontan ez dute *i*'rik sartzen: *zat*, *zazu*, *zagu*, *litzat*, *litzazu*, *litzaket* eta.

Euskalkitxo onek *zute* bukaera egiten du *zue* ta *tzukee;* ta gipuzkoerazko *ote* bukaera beŕiz *ie* ta *iyue:* zitzaien = zitzaioten, *litzayue* = litzaiote, *liyue* = liote eta ala.

GOIZUETA'KOA. Arano ta Goizueta bi eŕiok bata bestearen ondoan egoteko, aŕigaŕia da euskeran batetik bestera dagoan berextasuna. An ikusi degu *i* izkia galdu egiten dutela *zat, zazu* ta beste oŕelako itzetan. Emen beŕiz, an artzen duen *a* kendu ta kentzen duen *i* izkia artzen dute. Ala *zait* esateko esaten dute *zit*, *zizu*, *zio*, *zigu*. Berealaxe *nitzizu* = nitzaitzu'ren lekuan; *gitzitzu* = gatzaitzu'ren ordez, *litzit* = litzait esan beaŕean; eta onela *tzi* sustrai askolariaren ondotik ez dute *a*'rik nai. Arano'n sustrai askolari guziak gipuzkoerazkoak diŕute; Goizuetan ordea guziak napaŕaldekoak. Euskalki onen gixekoa Be-Napaŕa'ko Zizo-Mixaiain'en zegoala zion Bonapartek. (1) Ala ere, garaien bukaera asko, gipuzkoan bezalaxe egiten diŕute. Laŕaun'go euskeraz itzegitean *ote* bukaeraz esaten nuan aldaketa, egiten dute emen ere beren erara. Gipuzkoerazko ote bukaera ez dute era berean aldatzen batez itzegitean, nola bi edo geiagoz

(1) Le Verbe Basque en tableaux par Le Prince Lois Lucien Bonaparte. *Observations.*

itzegiten. Batez itzegiten ba'da, gipuzkoeraz bezalaxe esaten dute: diote. Ala, Joxe'ri argia ekarri ba'liote, esaten dute. Baño bitaz esan beaŕ dutenean kentzen diote erdiko *o* ori ta ala esaten dute: Joxe'ri ta Txomin'i argia ekarri *ba'lite*. Aldaketa onengatik irugarren batzuei dagozkien garaien esanera guziak bukatzen ditute *ite* bukaeraz. Aiei eraman diote, esaten due: aiei eraman *dite*, *titte*, *ditet*, *ditegu*.

Gipuzkoa'ko dida, emen egiten dute *dia*, erdiko *d* izkia galduz.

ZUBIETA'KOA. Zubieta'ko euskalkitxoak Basaburu Txikiko euskalkitxoaren bukaera, baño angoaren utsarterik ez du. Bildu dituten guzietan osoenetakoa da.

Goiko erietan ikusi dugun *atzi* sustraia emen *itza* biurtzen due: *litzait* eta. Ta emen ez dut arkitu Basaburu'n arkitu ditugun beste berextasun aietakorik ere naiz ain bertan egon. Ba-dute emen beste berextasun bat. Gipuzkoerazko *ninduzun* eta *ginduzun* garaietan erdiko *d* ori beraxtu egiten dute ta *y*'ren gixen esaten dute. Labain'en berorixe egiten dute *gindūzun*'ekin, naiz *niñuzun* esan.

Ezkuŕa'n	*Erasun'en*	*Saldis'n*
Nadeñ	Nain	Nadien
Zaïezen	Zaïezen	Zaïezen=Zaïean
Dein	Dain	Dadien
Gaïezen	Gaïezen	Gaïezen
Zaïezen	Zaizten	Zaïiezten
Dein	Daïezen	Daïezen

Sunbïla'n	*Labain'n*	
Legasa'n	*Zubieta'n*	*Arano'n*
Naien	Nain	Nain
Zaïiezen	Zaïezen	Zaïezen
Daien	Dadin	Deien
Gaïezen	Gaïezen	Gaïezen
Zaïiezten	Zaïezten	Zaïiezten
Daïezen	Daïezen	Diïezen

ULTZAMA'KOA. Ultzama.guzian, Odieta ta Anue ibaŕetan euskalki bera itzegiten da, ta au bera itzegiten emen zen Xulapen'en (Juslapeña) ere; bai biñipin Osakaŕ eta Beorburu'n.

Euskalki onek len Basaburu Aundi'koan ikusi dituzun napaŕ ipaŕaladeko sustrai askolariak dituu. Emengo euskeran aditz aldakaitzan *zki* sustraia sartzen da, baño aditz aldakoietan beti napaŕ-ipaŕaldeko *t* ta *tx* dira sustrai askolariak.

Ultzamako eŕi guzietan esaten dute *ŕ* ta beste ibaŕetan beŕiz geienak *t* gogaŕa. Euskalki onen bukaera berexiak dira *zie* zute'ren ordez eta *te* edo *ote* gipuzkoeraz bezalaxe.

Euskalki ontan gertatzen da almenazko garaietan napaŕ egoaldeko euskalkian ere gertatzen dana, baita ere Arakil'en. Au da, garai oien asierako *de* jan egiten diote; ta dezaket esan beaŕean esaten due *zaket, zakezu, zake* ta garai ori bera aunitzezkoa egitean askotan batekoak galdu zuen *de* beŕiz artu egiten du. Ala esaten dute: *detxaket, detxakezu* ta. *Txaket* utsik ere esaten da, baño geiago *detxaket.*

ESTERIBAŔ TA EŔOIBAŔ'KOA. Esteribaŕ'ko euskera Ultzamakoaren antz-antzakoa da. Bukaerak berberak dituu. Sustrai askolaritako *tx*'ren ordez artzen dute *tz*, ta *ŕ* gozoaren ordez *t*.

ñ'rik ez da euskalki ontako aditzetan, beti gogortu egiten dute.

Ibaŕ geieneko eŕietan, Iragi atera ezkeroz, nere ustez guzietan len-lentxagoko garaiak bukaerako *o* izkia galdu egiten dute. Ta esaten dute *zitze, zine, ze, N*'ren ondotik *t* eldu denetan *t* ori *d* biurtzen dute: *Nindaike, zindaike, gindaizke.*

Eŕoibaŕ'koa ta baita Artzibaŕ'koa ere Esteribar' koaren aldaketa batzuek besterik ez dira. Ta aldaketa

aundiena dago gipuzkoerazko *io* ta *iote* bukaera duten garaietan egiten dute *ako* ta *akote* ta batzuek *eko* ta *ekote*, au Artzibar'en geiago.

Eroibar'en garai geienetan ibiltzen dute oraindik Ipar-aldeko *t* sustrai askolaritako, baño Artzibar'en oso gutxi ibiltzen da, ta oren lekuan artzen dute *dizki*.

Garaietako lenengo lagunaren *ida* bukaera iru ibar auetan agertzen zaigu, geienean erdiko *d*, *r*'e biurturik; Esteribar ta Eroibar'en *d*'ekin ere garaien batzuetan ibiltzen dute baño. *Zinira* = ziñidan esateko, *zira* = ziran esan bearean.

Artzibar'en beste aldaketa oargari bat egiten dute. Aristian esan dugun *zinira* ortan bezala bi *i* eldu diranean *n* erdian dutela, *n*'ren ondotik eransten diote *d*, ta esaten dute *zindira* = ziñida'en lekuan, *zindigu*, *gindizu* ta ala. Baño gero arigarigoa dena *zin*'en ondotik *e* eldu ba-da ere *d* ori berdin sartzen dute, *zindeko* = ziñio'ren ordez ta onela gipuzkoerazko *ziñi* guziak egiten ditute *zindi* edo *zinde*'rekin.

Artzibar'ko euskeran beste berextasun ikasgari bat ba-da. *Ke*'z bukatzen diran garaietan bukaeran bear luken *ke* erdira sartzen dute. *lezakera* = lezadake esateko, *lezazkera* = lezadazke'ren ordez; *lezakerate* = lezadakete esan lekuan.

AURITZ TA OROZ-BETELU'KOA. Auritz (Burguete) ta Oroz-betelu'ko euskalkiak orain ikusi ditugun oien aizpatxo batzuek dira. Dira len ikusiak baño atsegiñagoak belarirako, an bukaeretan galtzen duten *n* emen beriz artzen dutelako. Bestenaz ango *ziñi* ta *giñi*'z esan degun aldaketa berdin-berdiña da emen ere, baño an baño ere aurerago deramate *zin* edo *gin*'en ondotik *bocal*'ik ez bereala jartze ori. Emen *zin* edo *gin*'en ondotik beti dator *d*, *bocal*'a baño len. Oren adizpideak jari baño len beste beren arteko ber-

extasun bat nai dut adirazi, biak batean saŕi ikusteko. *Zin* edo *gin*'eri atzetik erasten dioten *d*'ren ondotik Auritz'en jartzen dute *e* izkia, ta Oroz-Betelu'n beŕiz *a*.

Auritz'en	*Oroz-Betelu'n*
Zinden	Zindan
Ginden	Gindan
Zindeten	Zindaten

Napaŕ Ipaŕaldeko ĩ askolaria ez da agiri euskalki auetan, garai bat bakaŕean Oroz-Betelu'n besterik.

Esteribaŕ'tik asi-ta oneraño ikusi degu, Napaŕ Egoaldekoa Bonaparte'ek deitzen duan euskalkia; orain sartzera goaz Aezkoa'n, Luzaide'n eta Baztan'en itzegiĩen diranetan.

AURIZPEŔI'KOA. Aurizpeŕi'n (Espinal), Aezkoan, Luzaide'n, Baztan-Basaburu'n, Amayuŕ'en eta Zugaŕamurdi'n itzegiĩen diran euskalki guziak aidezkoa ba-dute. Argi agiriko da ori onako ikusbide ontaz:

Luzaide'n	*Auritzpeŕi'n*	*Aezkoa'n*
Daazu	Darazu	Dadazu
Daa	Dara	Dada
Daazie	Darazie	Dadazie
Daate	Daŕate	Dadate

Baztan-Bas.	*Amayuŕ*	*Zugaŕamurdi*
Datazu	Datazu	Datazu
Daut	Daut	Dat
Datazue	Datazue	Datazue
Dadate	Datate	Datet

Au ikustean irudi zait, ba, guziak aide dirala, gauŕ bi etxealdetan berexiak bezala, baño.

Ara oraindik beste ikusbide bat.

Luzaide	*Aurizperi*	*Aezkoa*
Daizut	Dauzut	Dauzut
Daizu	Dauzu	Dauzu
Daizugu	Dauzugu	Dauzugu
Daizie	Dauzute	Dauzie
Baztan-Bas.	*Amayur*	*Zugarramurdi*
Datzut	Berdin	Berdin
Datzu		
Datzugu		
Datzute		

Ikuskai ontan agiri da argiago zein zeñekin eldu diran obeki. Luzaide, Aurizperi ta Aezkoa dira orain aidezko urbilena duenak.

Ta azkeneko biak berexten dira angoagandik, Luzaide'n *i* esaten dutelako Benaparako erara, emen *u* esaten dutena. Esan dileke, ba, beren berextasunik aundiena datorela esaneratik, berezko aditzaren izaneratik baño geiago.

Aurizperi'ko euskalkiak, nola baita Eroibar'ko azkeneko eria Aezko aldera, bere ibareko euskalkitik nasten dilu asko garai oso-osoak. Baño Aditz aldakoiean garai geientsuak Aezkoa'ko erara dilu Aezkoa'n *dada* egilen dutena, emen bigaren *d*, *r* egiñez *dara* esaten dute. An *e* egilen dutena ere, emen *a* biurtzen dute.

Aezkoa'n	*Aurizperi'n*
Deet	Daet
Deezu	Daezu
Dee	Dae

Beste gañerako gauzetan elkarekin dabiltza beti.

LUZAIDE'KOA. Luzaide'n bildu dutena geienean ongi datoi Bonapartek Be-Napar Egoaldekoa bezala jartzen duanarekin baño ez beti, Luzaide'koak beti artzen dilu goi-Napar aldekotik izki berexien batzuek edo baita garaien bat ere.

BAZTAN'GOA. Baztan'en bi eratara itzegiten dute. Baztan-Basaburu'koak egiten dute *Napar* ipar-aldekoak bezalaxe ñ'ek eta beste aldean ez dute ñ'rik.

Gero garai batzuetan baditute lagun baten baño geiagoren esanerak berexiak.

Ara: *Nintzan* eta *nintzen* esaten dute Bazt. Bas, ta beste aldean beŕiz *nitzen*.

Baztan Bas.	*Amayur'en*
Neiden	Nindaien
Zindezen	Zintezin
Zeiden	Zedin
Gindezen	Gindezin
Zindezten	Zintezten
Zeitezen	Zitezen

Baztan Bas.	*Amayur*
Zaitutet	Zaiztet
Zaitute	Zaizte
Zaituztegu	Zaiztegu
Zaizte	Zaizte

Baztan Bas.	*Amayur*
Diozuten	Dakioten
Diozuzun	Dakiozun
Diozon	Dakion
Diozogun	Dakiogun
Diozutzuen	Dakiozuen
Diozoten	Dakioten

Ba-dira, ba, Baztan'en onelako berextasun ikusgarŕiak Baztan Bas.'tik Baztan Goiza'ra, baño garai asko ta askotan berdin-berdiñak dira.

Bietan nasten da, ta ez gutxi Goi-Naparoko euskalkietatik. Eta ez naiz aŕitzen Bonaparte bera zein euskalki artean jaŕi ez zekiala arkitzea. «Baztan ibaŕeko euskera, dio berak, artu liteke, ezeren eragozpenik gabe, laburdiko irugaŕen euskalkitxo bat bezala, eztiteke, ba erabaki, kasketa piskoatez ez izatea, ea

azkeneko ortatik edo goi-napaŕ ipaŕaldekotik artzen daun geiago.»

Ez noa, ba, ni erabakitzea nongoa den, emengo euskalkiaz, esatera noanaz. Emengo euskalkiak Laburdikoaren bukaera berak diĩu garaiyik geienetan.

Baño Baztan'go bi alderditako euskalkitxotan baditute Laburdi'n diĩuten erako garaiak eta goi-napaŕaldekoak uts-utsik diranak. Len ainbeste aldiz ikusi degun *t* sustrai askolaria emen daukagu beŕiz, tut, tuzu, tu itzetan. Aŕitzekoa da gero *tut* oŕekin gertatzen dena. Napaŕo'ko baztaŕ guzietan, nere ustez, ibiltzen da. Araitz, Leitza ta Areso'n *ba* auŕetik ezpadu, ez da ibiltzen geienean *tut* ori; baño ba-*tut* esaten dute oietan ere, naiz geienean *diĩut* ibiĩi.

Ori da, ba, Napaŕoko euskeraren ezagungaŕia. Gaurko napaŕo guzi-guzian arkitzen da, ta emendik landara iñon ibiltzen danik ez dakit.

Baztan'go bi alderdietan arkitzen dut beste garai bat Napaŕoko lau ibaŕetan bakaŕ-bakaŕik arkitzen dena; Napaŕoko iru baztaŕ uŕtienetakotan, Burunda'n, Zaraitzu (Salazar), Eŕonkari (Ronkal) en, eta Baztan'en. Ara:

Gipuzkoeraz	*Burunda'n*	*Zaraitzu'n* (Bonaparte)
Diotet	Daubet	Dabet = diabezut
Diotezu	Daubezu	Dabezu
Diote	Daube	Dabe
Diotegu	Daubeu	Dabegu
Diotezute	Daubezai	Dabezie
Diote	Daubei	Dabe

Eŕonkari'n	*Baztan'en*	*Zaraitzu'n* (Orain)
Dabeid	Dabet	Diabexut
Dabeidzud	Dabezu	Dabexu
Dabei	Dabe	Diabexu
Daguei	Dabegu	Diabexugu
Dauzei	Dabezue	Dabezie
Dabei	Dabete	Diabexie

Zaraitzu ta Eŕonkari'n Bonaparte'k bildu ziĩuanak jaŕi diĩut lenengo lekuan eta gero bigaŕen aldiz jaŕi dutena da gauŕ esaten den bezala. Eŕonkari'n gauŕ nik bildu dutena franko aldatua dago, *Dauzeir, dauzei* eta. Argatik eztut jaŕi.

Baño oŕ jaŕi diĩuten oien arteko aidetasuna iñoŕk ez dezake noski zalantzan edo dudan jaŕi. Napaŕoa bere buruaren jabe zen garaietan nonbait ere gure gurasoen artean ba-zen orain baño alkartasun geixago izkuntzean ere ta orduko aztarnak gelditzen zaizkigu naski itz oietan.

Garai oŕen jatoŕia. Garai oŕen jatoŕia argi-argia da neretzat. Olazti'ko *derot*=dioŕ'en ordezkoaz itzegiĩean eta aŕen jatoŕia agertzean ikusi degu ango *eran* aditza *derot* oŕen iĩurburua dala. Gauza bat bati ekaŕi diotela esateko, *derubet* esaten dute Olazti'n. Oŕ ezagun da lenengo *ro* sustraiako *o* izkia *u*'az aldatu besterik ez dutela egin eta *o*'ren ondotik *b* gogortxoa litzekelako Burunda bereko beste eŕi batean, Urdian'n, derubet'eri *r* kendu egiĩen diote, len esan dutenaz, eta esaten dute *deubet* ta andik urbiĩengo eŕian Iturmendi'n *e*'ren lekuan *a* aldatzen diote, esanez: *daubet.* Baztan'en ere ez ote du jatoŕi ori bera?

Zaraitzu ta Eŕonkari'koaz, uste dut biñipin, ez duela beste sorpururik. Eŕonkari'n eraman esateko ibiltzen dute beti *eruan;* ortik *deruabet* berez jalkitzen da. Ta alde guzietan gertatzen dena, labuŕago esateagatik, *dabet, dabeid.* (Eŕonkari'ko bukaerarekin).

ZUGAŔAMURDI'KOA. Zugaŕamurdi, Urdazubi ta Frantzi aldeko beste bi eŕietan Baztan'go euskeraren antz-antzekoa dute. Asko ta asko garai berdinberdiñak ere bai Baztan Goiza'koakin; baño Baztan'goak baño ere joera geiago du Laburdi'ko euskalkira, naiz artatik ere piskoat berexi.

AEZKO'AN. Bonapartek emen egin zuan lana baño obegorik ez nula egin beaŕ etsia nengoan, baño ala ere nere begiz ikusi ta nere belaŕiz entzun nai izan nuan ibaŕ ontako euskera ta iñoiz bildu gabea ba-lego bezalaxe bildu.

Nere lan aldia egin ondoan auŕez-auŕe jaŕi diſut bionak eta garai geientsu-etan berdin daukagu. Baño garai batzuetan aŕek *au* esaten duan lekuan neri *ou* esan didate.

Gipuzkoerazko	Bonaparte'k	ta nik bildu dut
Zindudan	Nauzu	Nouzue
Zindun	Zauzu	Nouzue
Zindugun	Gindauzu	Gindauzue
Zinduten	Zauzute	Zouzie

Oſen aunitzezkoa Gip.	Bonaparte'k:	nik bildua:
Zindutedan	Nauzie	Nouzie
Zindute	Zauzie	Zouzie
Zindutegun	Gindauzie	Gindauzie
Zinduten	Zauziete	Zouzie

Onelako beste aldaketa batzuek ere ba-dira, batzuek aundi samaŕak, besteak ſxikixagoak. Aŕek *zute* bukaerarekin artu ziſuan franko, *zie* bukaerarekin esan dizkidate.

Beste bat:

Bonaparte'k:	Dayet	nik bildu dut:	Deet.	Gipuzkoeraz:	Diotet
	Dayezu		Deezu		Diotezu
Aunitzezkoa	Daye	*Aunitzezkoa*	Dee	*Gipuzkoeraz*	Diote
Daiztet	Dayegu	Deiztet	Deegu	Dizkiotet	Diotegu
Daiztetu	Dayezie	Deiztetu	Deezie	Dizkiotezu	Diotezute
Daizte	Dayete	Deizte	Deete	Dizkiote	Diote
Daiztegu		Deiztegu		Dizkiotegu	
Daiztezie		Deiztezie		Dizkiotezute	
Daizte		Deizte		Dizkiote	

Orain aldian ango euskalkiak dauzkan esanerak ageriko dira, ba, lan ortan.

ZARAITZU'KOA. Aezko'koa baño ere ikusgarriagoa da Zaraitzu'n len neronek bildu ta gero Jaurte'ko (Jaurieta) Apez langile ta on-on batek zuzendu ta txukundu difena. Lan ontan ez da izango Bonaparte'k bildu edo oartu ez zuan gauzik nai ba-dezute, baño arek eman zizkigunetan baño askoz argiago agiri da eriaren esanera itz puska guzietan. Arek jari zuan guzia *z* ta *Tz*'rekin nai eriak *x* ta *tx* 'rekin esan. Egia da euskalki ortaz egifen difun oaretan argi jartzen duala noiz egifen duen *x* ta noiz *tx*, baño ala ere izkuntza beria dirudi itzegifen dan era berera idatzi edo Naparoa'n esaten degun bezala ezaririk.

Gañera lan ori xuxendu difen Apez jaun arek ain txukun, polèki ta argi jaririk itzuli dif. Atsegin geiago ematen dif beste dekartzaten guziak baño.

Zaraitzu'ko euskalkia da guzia eztia, *x* ta *tx*'ez josirik dago, gaiztakeririk gakeko aurtxoakin edo zerutarakin itzegifekoa dirudi. Entzun dezagun beren *Orain-bertako* garaia.

Ni Nitxu	*Gipuzkoeraz*	Beste garai bat.	Naike	*Gipuz.*
Xu Xra	Naiz		Xaixke	Naiteke
Kura Xu	Zera...		Diaikexu	Zaitezke
Gu Gitxu edo gra			Gaitketxu	
Zek Zadie			Zaizkie	
Kurak Txu edo gra			Diazteketxu	

EŔONKARI'N. Zer esango dizuet euskalki ontaz? Bonaparte'k bildu zuanarekin geldifu bearko degula, beste aldien batean len bilatu nifuan baño erakusle obeak ez ba-ditut upatzen.

Bi itzetan. Berez lan astun eta nere motelkeriz astunagoa egin duten ontan, ikusi dugu lena gure asabengandik geldifzen zaizkigun napar euskalkizko idazki edo liburuaz oraingo Naparoko euskera ez dela asko asko aldatu ordukotik onera, bere aditz laguntzalean.

Burunda'an arkiĩu dugu iru euskalkitxotan berexten dan euskalkia ta oartu gera *zai* bukaera duela aunitzezko bigarẽn beti, Olazti'n, Ziordi,n, Urdiaien'en, Iturmendi ta Bakaikoan; Altsatsu'n beŕiz *zubei* bukaera egiĩen dutela; ta azkenean irugarẽn lagunarentzat beŕiz eŕi guzietan iru bukaera ibiltzen diĩutela: *bai*, *ai* ta *ei* (au Eŕonkari'n bezala).

Etxarí-Aranatz'en ikusi dugu beste euskalki bat beste iru euskalkitan berexia. Etxarí'n *zubie* bukaera' rekin aunitzezkó bigarẽn lagunarentzat ta Arbizu'n ere bukaeera berdiñarekin; Ergun guzian oŕen ordez upatu dugu *zie* bukaera ematen diotela ta irugarẽn lagunarentzat *bie*, *ie* ta *yue* ere bai, naiz garai gutxitan.

Lakuntza, Uarte-Arakil eta Aŕuazu'koai aditu diegu *zute*'ren ordez *zube* ta *ute*'ren lekuan Lakuntza ta Uarte'n *ube* derabiltela ta Aŕuazu'n beŕiz *ote*'ren ordez *iye* ta *eye*.

Arakil, Basaburu ta Imotz guziko *zte* zutenen ordezkoak aŕiĩu gaiĩu ta oartu gera bukaera ber-berak ba-diĩute ere Arakil'en, esanera motzagoa ta ez ain ugaria dutela.

Gero sumatu dugu Laŕaun'daŕen *Zute*'ren ordezko *zui* ta *ute*'ren lekuan esaten duen *ui* ura, ta baita nola *ote*'ren lekuan batentzat danean *oi* bukaera ematen dioten ta askorentzat denean *î*.

Leitza'n ikusi dugu ondorean Araiz'ko *zue* bera zute'ren ordez esaten eta bi bukaera beŕi *ute*'ren lekuan *ea* ta *ote*'ren lekuan *oa*, ta bero rixe Erasun'en eta Ezkuŕa'n.

Basaburu-Txikian, Bertizarana'n Sunbĩla'n eta, *zue* bera arkiĩu dugu, baño ala ere oartu gera zer berexketak diĩuten *ia* bukaeraren ordez eta.

Arano'n ere *zue* bera ikusi dugu bigarren lagunaren bukaeratako, baño, emen topo egin dugu beste bi bukaera ezagunezakin, *ee* ta *oe* baita ere len Etxarri'n ikusi duguna beriz emen arkitu dugu, au da, *yue* bukaera.

Goizueta'n ez dugu arkitu gipuzkoerazko bukaeratatik berexirik *ite* bat besterik eta ori aunitzezko irugarren lagunarekin askok ikustekoa dueneako bakarik. Baño oartu gera nola *zaitut* eta onelakoai *a* izkia jan egiten dioten be-napar egoaldekoak bezala.

Ultzama'n agertu zaigu beriz len Ergun'en (Ergoiena) upatu dugun zute'ren ordezko *zie* bukaera; ta ikusi dugu beste emengo bukaera guziak gipuzkoeraz bezala ditala.

Esteribar'era joan gera ta an ere Ultzama'koaren antz-antzeko euskalkia arkitu dugu garaiyik geienetan, aren bukaerako *n* izkia galtzen dun bezala ez ba-lu galduko. Baño auxe da goi-napar egoaldeko euskalkiaren bereixtasun bat, ta euskalki ori emen asten da gaurko egunean.

Eroibar'en aristian aipatutako euskalkiaren usai geiago artzen du, ta naiz oraindik emen ere ibili *t* askolaria ta *ote* bukaera, bere ontan asten dira *ako* ta *akote*, *azko* ta *azkote* bukaerak esaten.

Oroz-Betelu'n bukaera berdiñak arkitu ditugu, naiz beste zerpaetan berexirik egon.

Artziba'en ere ez dugu *ako* ta *akote*'ren lekuan esaten duen *eko* ta *ekote*'z gañera bukaerako *ke* itz erdian sartzen dutena beste berextasun aundirik arkitu. Auritz'en ere *eko* ta *ezko*, *ezkote*.

Aurizperi'koa, Luzaide ta Azkoa'koa ikusi dugu zeñen aide urbilak diran eta beren bukaerak, *zie* ta *ako* ta *akote* dirala ere bai.

Baztan'go bi aldetan, Amayur ta Zugaŕamurdi'n arkiĩu diĩugu zue ta ote bukaerak ta Baztan'go bi alderditan *be*, *bete* ta *bezte* Eŕonkari'n eta Burunda'n bakaŕik len arkiĩuak.

Zaraitzun gogoan duzue zeñen euskalki samuŕ ta atsegiña duten.

Azkena. Bukatu dut, jaunak, nere lana, Jaungoikoari eskeŕak.

Baño nere itzaldi au ez dut bukatu nai, Euskaltzaindiari itz bat eta neri entzutera etoŕiz ainbesteko omena egin diazuen guziori beste itz bat esan gabe.

Euskaltzain, jaunak; ikusi duguna ikusi ondoan guziori gogoratuko zitzaizuten neri gogoratu zaiĩena noski; nere lanetik berez jalkintzen den ziĩua da-ta. Au da, onenbeste aldaketa ta onenbeste berextasunekin gure euskerak ez dezake deus irabazi. Irabazi beaŕean bereixtasun au euskerarentzat gauzarik kaltegaŕienetakoa da.

Gure berextasun oiekatik, gure euskera maitagaŕia paŕagaŕi jartzen dugu gure artera datozen erdaldunen begietan, lotsagaŕi elkaŕi ezin adiĩuz ikusten diran euskaldunentzat eta azkenean goŕotagaŕi ta zer esanbide naiko ematen diena, guri ta gure gauzuei auŕetik gutxi nai digutenentzat. Argatik beaŕezkoa da euskera batutzea, euskera bizitzekotan.

Euskera maiĩe dezutelako, gauŕ emen bildu zeraten guziori esan beaŕ dizuet beŕiz, gure izkuntza maitea, beŕitzeko, aberasteko, goratu ta zabaltzeko lanetan Euskaltzaindiak egiñalak egin da ere, ezer gutxi auŕeratuko giñukela edo batere ez, zuen laguntza ez ba-ziñigute emango. Zuek batez ere eŕitako buru zeraten Auzo-gizonak eta Apez jaunak izan beaŕ dezute Euskaltzaindiaren besoak; zuen eskuetan dago gure

euskera ederaren bizia. Azkenean, esa zagun Dogson jakintsuarekin:

Heuskara! oi buru maitea
Nehork ohortzi bai zaitu lurpean,
Zu begiratzeko aunitz edefa!
Goratu zaite Paris'en artean!
Huskara! ay hizkuntz maitea!
Askok lurperat nai zinduzketen
Ala baina gero zure phiztea
Biotz-garaile betiko izanen.

EUSKALTZAINDIA'REN AGERKIZUNAK

Euskaltzaindia'k, orain arte bereix argitaratu dituan agerkizunak onexek dira.

1919.—Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca. *Euskalzaingoren araudi estaria.* Eusko-Argitaldaria, Bilbo, 1919. Amabost orialde in-16 einekoak.

Aitua dago. (Agotado. *Épuisé).*

1920.—Euskaltzaindiaren barneko araudia. *Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca.* Eusko Argitaldaria, Bilbo, 1920. Ogeita-lau (12 + 12) orialde, in-16 einekoak.

Auxe da aurretik dabilen gutuntxoaren 2'garen ateraldia. Ikus Euskera'ren 1ko Atala, 60'garen orialdean.

1920.—Euskaltzaindiaren sortarauak. *Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca.* Eusko Argitaldaria, Bilbo, 1920. Amasei (8 + 8) orialde in-16 einekoak.

1920.—Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera. Imprenta del Ave María, Bilbao, 1920. Ogei orialde, in-32 einekoak.

1920.—Euskera. Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak. *Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca.* Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque. 1ko urtea, 1ko zenbakia. Martín, Mena y Cía, San Sebastian. Laurogei orialde, in-8° einekoak.

1920.—EUSKERA... Iko urtea, II gaŕen zenbakia. Edouard Privat'en iraŕkolan, Tolosa (Prantzi' koan), 1921. Laurogei-ta-amasei oŕialde, in-8° einekoak.

1921.—EUSKERA... II gaŕen urtea, Iko zenbakia. Altube'taŕ Seber yaunaren saŕerako itzaldia eta Azkue yaunaren erantzupena. Edouard Privat' en iraŕkolan, Tolosa-Prantzikoan. Iruretan-ogei-ta-laur oŕialde, in-8° einekoak.

1921.— EUSKERA... II gaŕen urtea, II g. zenbakia. Aita Intza ta G. Lakonbe'ren saŕeritzaldiak eta Aita Olabide ta Azkue Jaunaren erantzumenak. Edouard Privat'en iraŕkolan, Tolosa (Prantzikoan). Irurogeita-lau oŕialde, in-8° einekoak.

1922.—EUSKERA... III g. urtea, I g. zenbakia. Euskeraren batasunaz izan diran batzaldietan irakuŕitako txosten edo ikerpenak. Eusko Argitaldaria, Bilbo. Eun eta ogeita amabi oŕialde in-8° einekoak.

1922.—EUSKERA... III g. urtea II gn. zenbakia. Euskaltzaindia'ren bigaŕen urteko batzaŕ-agiriak. Aita Zabala'ren aditza. Aita Intza'ren saŕeritzaldia (amaya). Eusko Argitaldaria, Bilbo. Larogeitaamabost oŕialde, in-8° einekoak.

1921.—LENENGO EUSKALEGUNETAKO ITZALDIAK. 1921 g. urteko Iraila'ren 4-8 bitaŕtean Durango'n egindako euskal-yayetan irakuŕi ziran itzaldiak. Eusko Argitaldaria, Bilbo. Eun eta ogeitamalau oŕialde. in-8° einekoak.

Salgei, Eusko - Ikaskuntza ' ren bazkide diranentzat 1,50 lauŕlekotan eta ezdiranentzat 2,50 lauŕlekotan.

1922.—IPUIN LABUŔAK (umetxoentzat). Garitaonandia'taŕ Bitoŕ'ek egiñak: Euskaltzaindia'ren idazti-ba-

tzaldian saritutako liburua. Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Beŕogeitamaŕ oŕialde in-8° einekoak, apaingaŕi ta guzti.

Salgei: Eusko-Ikaskuntza'ren bazkide diranentzat laufleko 1'en, ez diranentzat, laufleko 1,25'n.

— OSASUNA, MERKETZA TA YANARITZAZ. *Junta de Cultura Vasca*'ren eskariz eta Euskaltzaindia'ren aginduz, Eskauriatza'ren Azpeitia'taŕ Julene'k egindako *Sukalde liburua*. Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Beŕogeitamalau oŕialde, in-8° einekoak.

Salgei: Eusko-Ikaskuntza'ren bazkide diranentzat laufleko' ren 0,75; ez diranentzan laufleko 1.

EUSKAL - ABESTI. — *Esaten dute bada... Txiribogin andrea. Ezkongaietan. Bautista Bazteŕetxe...* Izki ta eresi.

Duan emoten dira.

Liburu ta gutunok, Euskaleŕiko gutuntegirik onenetan eta Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean, (Ribera 18, Bilbo) saltzen dira.